

ARGIA

“Presoari
ihes egiten
laguntzea
emagina izatea
bezala da”

Mikel Antza

32-37. orriak

#2.737 | 2021 / 06 / 20 | 3,90 €



**“Haurrak dituzten
kirolari profesional
asko dago: aitzak dira”**

12 | NEKANE TERÉS



**Nola eman
klaseak
kanpoan?**

22 | HEZKUNTZA



**Ziburuko Liburu
eta Disko Azoka,
bilgune eta bizigarri**

28 | KULTURA

DATORREN ASTEKO ARGIAREKIN...

LARRUN #264
HILABETEKARI MONOGRAFIKOA



EUSKARA,
ATEAK ZABALTZEKO

Panorama

- 04 | ASTEKO ARGAZKIA
- 06 | AKTUALITATEA
- 08 | EKONOMIAREN TALAIAN
- 09 | HUMANITATEAREN UNE GORENAK
- 09 | EZ HANKA EZ BURU

AZALEKO ARGAZKIA:
DANI BLANCO

Iritziak

- 17 | ASIER BLAS MENDOZA
- 18 | BEA SALABERRI
- 19 | RUBEN SANCHEZ
- 19 | EDU ZELAIETA
- 20 | INMA ERREA

SAILEN GOIBURUETAKO ILUSTRAZIOAK:
CLIPART COURTESY FCIT

Finkoak

- 38 | DENBORAREN MAKINA
- 40 | ARGIA KOMUNITATEA
- 42 | BIZI BARATZEA
- 48 | KULTUR-KRITIKAK
- 51 | DENBORA-PASAK
- 52 | ARG-KONTRA: MAITE ELIZONDO
- 54 | BERANDUEGI



DANI BLANCO

28 | ZIBURUKO LIBURU ETA DISKO AZOKA

Jenofa Berhokoigoinen jaso ditu mahai arteko eta plazako arrabotsetako iritzi helduak eta Dani Blancok iruditan hartu du egun eder hartan izan zenak begiak itxita berbizi dezakeen hori. Kultura izan da euskara deskonfinatu eta plazara atera duena, txikitik eragiten.

Elkarriketak eta erreportajeak

10 | NET HURBIL | ABU SITTA ZIRUJAU
“Gazan gaur osatu dituzun haur zaurituok hurrengo gerran berriz zaurituko dituzte”

Pello Zubiria

12 | PERTSONAIA | NEKANE TERÉS
“Taktikoki hobeak gara eta emakumeena askoz joko politagoa da”

Miren Artetxe

22 | HEZKUNTZA
Nola eman klasea kanpoan?

Mikel Garcia

32 | KULTURA | MIKEL ANTZA
“Liburu hau ez da errelatoaren batailarako munizioa”

Zigor Olabarria eta Lander Arbelaiz

44 | KULTURA | VELVET MAFIA
1960ko pop kultura piztu zuen gay komunitatea

Julen Azpitarte

46 | KULTURA
Amondarain:
A Mondrian Rain

Jone Alaitz Uriarte

Jabetza
Komunikazio Biziagoa
S.A.L. Ametzagaña Taldeko partaidea

Lehendakaria
Onintza Irureta

Erredakzioa
Amalia Lekunberri, Axier Lopez, Eneritz Arzallus, Estitxu Eizagirre, Gorka Bereziartua, Iraitz Madariaga, Jenofa Berhokoigoin, Jon Torner, Lander Arbelaiz, Mikel Garcia, Onintza Irureta, Pello Zubiria, Peru Iparragirre, Urko Apaolaza, Xabier Letona, Zigor Oleaga

Diseinua
Maitane Gartzandia

Argazkilaria
Dani Blanco

Produktzioa eta inprimaketa
Antza S.A.L.

Administrazioa
Jone Arzallus, Mari Karmen Loarte

Salmenta
Karlos Olasolo, Olatz Korta, Pello Basurto

Azoka
Mikel Olabide

Idazkaritza
Aloña Sorraluze, Bego Zuza

Web garapena
Asier Iturralde

Informatika
Iametzta interaktiboa, S.L.

Lege gordailua
SS 837-2012
ISSN
0213-909X
Batzorde parekidea
72562 E

GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO

Posta elektronikoak
komertzial@argia.eus
harpide@argia.eus

Telefona
943371545

Gipuzkoa
Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria

Nafarroa
Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina,
31001 Iruñea

Ametzagaiña taldeko kidea da ARGIA honako enprekin batera:

aniza
KOMUNIKAZIO GRAFIKOA

iametzta
interaktiboa

ADUR software productions

Doan eta libre

ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitaratu ditzakezu, gure egiletza aitortu eta baldintza beretan eginez gero. Are gehiago, gure edukiak ahalik eta gehien zabaltzea nahi dugu.



Lizentzia hau soilik ARGIAren edukientzat da baliagarria, baliteke beste testu eta argazki batzuek lizentzia hau ez izatea.



EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEAREN
SAREKO KIDE GARA



ARGIA HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDEZAK DIRUZ LAGUNTZEN DU:

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

Egon lasai

Inglaterra Kornualleseko hondartza idiliko batean elkartu dira G7ko buruzagiak. Luxuzko hotel baten barruan munduaren etorkizunaz hausnartzeko. Juntadizo honetan erabaki dute “iraultza berdea” egingo dutela, baita azpiegiturretan inbertitzeko ikuspegian “aldaketa erradikala” ere, “hazkunde garbiaren eta berdearen” bidetik. Eta ez hori bakarrik, haien multinazionalen zerga globala ezarriko diete. 2008an, antzeko goi-bilera batean, Nicolas Sarkozyk “kapitalismoa oinarri etikoen gainean birsortzeko” konpromisoa hartu zuen. Ondoren etorri ziren murrizketak, zerbitzu publikoen suntsipen masiboa, pentsioen jaitsiera orokorra, bankuen erreskatea... Baina, lasai, orain ezberdina izango da. Irudian: Extinction Rebellion-eko kideek klima aldaketarekiko arduragabekeria salatzen egindako parodia kontragailurrean.

📷 JON ROWLEY / EPA 🗨️ AXIER LOPEZ





URDAIBAIN GUGGENHEIM ERAIKITZEKO PROIEKTUA MAHAI GAINEAN BERRIZ



**PROIEKTUA
LEHENTASUNEZKOA DA
ESKUALDEA BIZIBERRITZEKO.
2008AN HUTS EGIN ZUEN,
BAINA ORAIN DA UNEA**

J. Karrion, Muruetako alkatea
El Correo



**PANDEMIAK ZERBAIT
ERAKUTSI BADU DA
TURISMOTIK BIZITZEA EZ
DELA AUKERA ONA. TURISMO
MASIBOA NATUR INGURUNE
BABESTUAN, HORI DA
ETORKIZUNA BATZUEN IRITZIZ**

@EndikaMontes



**GIZARTEA INDARBERRITZEKO
EUROPAKO FUNTSAK
PROIEKTU MEGALOMANO
BATEAN GASTATZEA IDEA
ONA DELA IRUDITU ZAIO
HAINBATI. EUREN INTERESEI
BEGIRA JARTZEKO DENBORA
GUTXI BEHAR IZAN DUTE**

@crisis_2020



**SERIO? EKONOMIA EREDU
HORI DA ESKUALDEAK BEHAR
DUENA? BIOSFERAREN
ERRESERBA BATEAN
JARDUERA EKONOMIKO HORI
DA BEHAR DENA? EZ DUGU
EZER IKASI**

@desplazatua



Ustezko irregulartasunak Donostiako Santa Klara uharteko lanetan

 **LANDER ARBELAITZ MITXELENA**

Gipuzkoako fiskaltzaren eskuetan daude Donostiako Santa Klara uharteko lanen esleipenean Udalak eginiko ustezko irregulartasunak, ARGIAk aurreratu zue-
nez. Udaleko langileen LABeko sail sindikalak dossier bat prestatu du eta bertan
agertzen denez, besteren artean, LKS eta Fhecor enpresek lizitaziorik gabe eskuratu
dute eraikina birgaitzea zuzentzeko lana. Funtzio horretatik, gerora Moyua enpresak
gastuetan egindako %23ko gailentzei onespina eman diete enpresa horiek, Do-
nostiako proiektu eta obren departamentuko zuzendariaren oniritziarekin. ARGIAk
ikusi duenez, Alfonso Vázquez da departamentuko zuzendaria.

Santa Klarako lanek zeresana ematen jarraituko dute, 4,5 milioi euro kostatu duen
Cristina Iglesiasen *Hondalea* obra inauguratu ostean ere. Udaleko langileen LAB sail
sindikalak irregulartasunak atzeman eta barne mailan udal gobernuari hauen berri
eman ostean, egindako galderen aurrean erantzunik jaso ez dutenez, Gipuzkoako
fiskaltzaren eskuetan utzi ditu informazio eta salaketak.

Iglesiasen eskultura eraikinean sartu aurretik eraikinaren estaldura kendu eta fa-
txada mantenduz eraikina eraisteko lanen zuzendaritza LKSri zuzenean lizitatu zioten
kontratu txikien prozedura baliatuz, 15.000 eurotik behera. Behin eskultura sartzen
hasita, ordea, eraikina birgaitzeko lanen zuzendaritza enpresa berak egin du, inongo
lizitaziorik gabe, LABek jakinarazi duenez. Beren webgunean ere hala baieztatzen du
LKS. Proiektua onartzeko 2019-910-eko diktamenean ere ez da lizitazioa agertzen.
Sindikatuaren arabera, udaleko proiektu eta obren departamentuko zuzendari Alfonso
Vázquezek tramitatu zuen zerbitzu hau lizitatu gabe, zuzenean LKS-Fhecor-i esleitu.

Horrez gain, Gipuzkoako Fiskaltzari eskatu diote ikertzeko ea nola ordaindu dion
Donostiako Udalak LKS-Fhecor-i eraikina birgaitzeko lanen zuzendaritza, lizitaziorik
ez badago, erakunde publikoak ezin diolako zuzenean ordaindu.

UHARTEKO LANETAN %23KO GAINKOSTUAK

Obren zuzendaritza LKS egin du eta bere ardura izan da lekuan bertan lanak nola
zihoazen gainbegiratzeko. Moyua enpresa arduratu da eraikina eraitsi eta behin es-
kultura barnean zela, gero berriz ere berreraikitzeaz. Moyuak 1,46 milioi euroko au-
rrekontua egin zuen lanaren lizitazioa eskuratu zuenean, proiektu hori onartu zuen
Udalak, eta azkenean 1,8 milioi euro kosta zaiola adierazi du.

HUMANITATEAREN UNE GORENAK

Maskulinitate toxikoa



ARITZ GALARRAGA

Harria bota eta eskua gorde nuen gero: zutabe batzuk atzera, gizabanakoaren bizitzaren batez bestekoaz ari nintzela –80 urteen bueltan kokatzen dute–, gizonetzkoena beti txikiagoa zela esan nuen, nire iritzian kausa nagusietako bat izan daitekeena aipatuz: maskulinitate kaltegarria. Alegia, faktore biologikoez gain, utzikierian, biolentzian, toxikotasunean oinarritutako maskulinitate batek labur dezakeela gizonetzkoen bizitza. Gehiago izango da intuizioa, ados, ikerketek erakusten baitute gauza bat eta kontrakoa. Baina zutabe honen motibazioa ez da hain zuzen bizi esperantzaren zergatia ezartzea, ezpada maskulinitate molde batez hitz egitea, maskulinitate molde hori kritikatzeko, maskulinitate molde horren alternatibak badirela, are osasungarriagoak direla agerian uztea.

Ezen, ez pentsa, maskulinitatea maiz izan zait gatazka iturri. Maskulinitate hegemonikoa dei dezakegun hori: hitz egiten dut apalki, ez zait inporta apartatzea beste bat pasa dadin, diruarekiko ezaxola da erabatekoa, autoak leku batetik bestera aldatzeko baino ez zaizkit interesatzen. Eta pasa izan naiz burlaize, bizkarreko takateko, futbol taldeetako aldageletatik. Noski, zakilduna naiz –ez guztien begietara normatiboa segur aski–, gizon gisa naiz irakurria. Eta irakurketa horren ondorio diren pribilegioak dauzkat, etekina ateratzen diet –batzuetan gogoz kontrara–. Baina horrek ez dit eragotzi gizon izatea zer den galdetzen hastea, gizontasuna eraikitzen duten zera sozial eta kulturalak identifikatzen, problematizatzen, deseraikitzen saiatzea, maskulinitate osasuntsuago bat bilatzen jarraitzea. Adibidez Ivan Jablonka irakurritz, bere autobiografia generikoa, genero-autobiografia alegia, *Un garçon comme vous et moi*. Eta zein da momentuz konklusioa: oraindik lan handia egin behar dugula, ez bakarrik parekidetasuna, lortzeko are gehiago desio nukeen egoera ez bereziki binarioa. ●

EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA
www.adurlarrea.com




ADUR

"KEZKAZ BIZI DUGU GURE HIZKUNTZAK IZAN DUEN ATZERAKADA"

GAZTE EUSKALTZALEAK MUGIMENDUA

Nafarroako mugimenduaren hitzetan, "kezkaz bizi dugu gure hizkuntzak atxikimenduari, bultzadari edota erabilerari dagokionez azken urteetan izan duen atzerakada. Sabaia jo dute aspaldi diseinatutako politikek eta bide horretatik lurra jotzera garamatzate. Norabide berritua markatu eta erasoan aurrean zutituko den mugimendu euskaltzalea berraktibatu eta artikulatu beharra daukagu. Euskaraz bizi eta antolatuko diren gune sozial, politiko edota kulturalak biderkatzeko deia egiten dugu". **2021/06/12**



Iraultza?



JUAN MARI ARREGI

Zarata handia ateratzen ari dira zenbait eremutan, Espainiako Estatuan justezko "iraultza elektriko" baten eta munduan egosten ari omen den beste "zerga iraultza" baten inguruan, hedabide handietako editorialek azpimarratu duten bezala. Propaganda gehiegi.

Ez genuke sinetsi behar horien marea ezagutu aurretik. Publizitate kutsua duten informazioekin bonbardatzen gaituzten arren, hilabete batzuk igaro arte ez da ezagutuko. Eta ez dezagun ahaztu balizko "iraultza" horiek zuzentzen eta kontrolatzen dituen munduko gobernu guztien erabaki politikoak baldintzatzen dituen sistema kapitalista bera dela.

Herritarrek tarifa elektrikoaren ordutegiarekin zorabiatzen dituzten bitartean, Espainiako Gobernuak iragarri du lege-aurreproiektu bat jarriko duela abian zentral nuklear eta hidraulikoentzako ordainsaria murrizteko; horrek 1.000 milioi euroko murrizketa ekarriko lieke elektrizitate enpresei "zerutik erorita" mozkinak" direlakoetan. Legea ez litzateke indarrean sartuko 2022ra arte, baina enpresa horien patronala eta foro nuklearra xantaia egiten ari dira jadanik, nuklearren porrot teknikoak ekarriko lukela argudiatuta.

Bestetik, munduko multinazional handien zerga-ordainketari buruzko "akordio historikoa" saldu dute herrialde boteretsuenek, eta mozkinen gaineko %15eko gutxieneko zerga izango dela esan dute. Hasieran %28 zen, gero %21, eta azkenean %15era jaitsi dute. Akordio hori beste herrialde askok aztertu eta onartu behar dute. Itxaron diezaiozun letra txikiari eta ea zertan geratzen den %15 hori. Adibidez, Espainiako Estatuan sozietateen gaineko zerga %25ekoa da teoriarik, baina kenketa fiskalen ostean, %8,3 baino ez da errealtatean.

Ez gaitezen engainatu. Itxuraldaketa da, etekin milioidunak pilatzen jarraitzeko. Hori da euren "iraultza". Kapitalismoa zerbaitetarako da ingeniarietza fiskalean aditua. ●



Uda, bidaiak eta mugazainak

JENOFA BERTHOKOIRIGOIN

Hortxetan dugu uda, eta harekin, urtaro honi lotu ohi ditugun oporrak, urte osoan eman guztiaren ordaina balira bezala. Eta berriro ere jendeak joan nahi du... urrun. Munduaren beste puntako itsas-bazter, naturako mirari edota diskoteka ospetsuen egon nahi du, 2020-2021 urteak irakaspen ekologikorik eman ez baligu bezala. "Urrun. Hegazkinak eraman nazala ene egunerokotasunetik urrun". Urrun edo hurbil. Euskal herritar batek nahiko du muga administratiboa zeharkatu, gure bazterrek deskubritzeko gogoz. Baina hara, aurren, nortasun agiriaren gain, bestelako bat erakutsi beharko diogu mugazainari: COVID ziurtagiria. Baldintza: gaitza pasatu izana, txertoa hartu izana edo aitzineko egunetan egin testan negatibo eman izana. Egunerokoaz bereizi eta bidaiatzeko bide ditugun ekitaldi kulturetan egoteko ere galdetuko zaigu COVID ziurtagiria. Sarrerako langile edo boluntario mugazain bihurtuko zaigu, balizko ziurtagiria duenari soilik bideratuz kulturaz gozatzeko aukera, eskubidea, xantza, pribilegioa -deitu nahi duzun bezala-. Urrun, hurbil ala emozionalki bidaiatzeko aukera mugatua dugu aurren -ez ordea iaz bezainbat, eta seguruenik horregatik dugu hain errazki onartzen baldintza-. Sinpleena dugu txertatzea, "bakea eta bi sos" erranzaharra "txertoa eta bi sos" bihurtzen dugula. Bestela, PCR froga dugu bidea. Ipar Euskal Herriko herritarrok, Segurantzaren Sozialari esker ez dugu ezer pagatu behar egin ahal izateko; Hego Euskal Herrian ordea garesti ordaindu behar izaten duzue -diruz prekario direnak txertatzera bideratuko direla aurreikusitako daiteke errazki-.

Honekin guztiarekin, ez noa txertoari buruzko auzia irekitzera, baizik eta txertoari buruzko erabakitze-espazioa galdekatzea, hori bai, ez egitearen hautuak ondorioztatzen dituen bazterketa eta debeku astunetan soa jarritz. Ez noa erantzunak ematera, bakarrik galderak luzatzea, ikaragarriki aldatuz doan gure egunerokoa galdekatzea, besterik gabe. COVID ziurtagiria berriro "iragan mundurako" ateak irekitzeko bidea baldin badugu, ateak hesteko bidea ere izanen delako beste batzuentzat. Edukitzea delarik baldintza, beti dagoelako norbait baztertuta, arrazoi bat ala besteagatik eduki ezinean dagoena. ●

Gazte bat jipoitu dute Basaurin, “marikoi zikina” oihu artean

 MIKEL GARCIA IDIAKEZ

Basauriko Bizkotxalde parkean izan zen eraso homofobia, larunbatetik iganderako gauean: Ekain Perrino 23 urteko gaztea hamahiru pertsonaren artean bortizki jipoitu zuten, eta konorterik gabe geratu ostean ospitalean bukatu zuen gazteak.

ERASO BORTITZA

“Marikoi zikina” (“*maricón de mierda*”) garrasi artean jasan zuen eraso. Nazka ematen zuela ere esan zioten. Gorputz osoan jaso zituen kolpeak, batez ere buruan. Biktimak salaketa jarri du Ertzaintzan.

ELKARTASUN HANDIA

Basauriko Udaleko alderdi politiko guztiek salatu dute eraso eta elkartasuna adierazi diete bai biktimari bai haren ingurukoei, adierazpen bateratuan. “Pertsonen askatasunaren aurkako ekintza hauek guztiz onartezinak dira”. Handik egun gutxira, martxa antolatu zuten Perrinoren lagunek eta LGBTIQ+ mugimenduko hainbat taldek, “Homofobiarik ez” lelopean. Ekitaldi jendetsua izan zen, 2.000 lagun inguru hurbildu ziren gertatutakoa salatzerako.



@ATOR_SERVER

OZAZETIK ORTZAIZERA KORRIKA

EUSKAL HERRIA. Korrika bigarren aldiz geratu da bertan behera, osasun egoera dela eta. Horren aurrean, euskaltzale talde batek Herrika antolatu zuen ekainaren 13an, Korrikaren ordezko: ehunka lagunek egin zuten korrika Ozaze eta Ortzaize artean, hogei herritatik igarota. Kamisetak jarri dituzte salgai eta salmentetatik lortutako dirua AEKri emango diote.

ETXEBIZITZA

281

etxe kaleratze gauzatu dira Hego Euskal Herrian 2021eko lehen hiru hilabetekoan.

Ustez Espainiako Estatu osoan etxe kaleratzeak etenda zeuden epe-tartean, EAEn kaleratze kopuru esanguratsua gauzatu da eta Nafarroan %47,8 egin du gora etxe kaleratze kopuruak. Alarma-egoeraren harira jarritako neurriak iraungitzen direnerako, etxe kaleratze oldea espero da.



LGBTIQ+. Ernalkuntza lagundua lesbianei baita bikotean ez diren emakumeei ere zabaltzearen alde egin du Frantziako Legebiltzarrak. Bioetika legea hirugarren aldikoz bozkatu du Legebiltzarrak eta alde agertu da gehien-go. Senatura igaro da orain gaia.



HEZKUNTZA. Joxe Mari Auzmendi beka sortu dute, hezkuntzako balioen inguruko proiektuak laguntzeko. Hik Hasik sustatu eta Hernaniko Udalak diruz lagunduta, Auzmendik bere ibilbide osoan garatutako ildoei jarraipena eman nahi die hezkuntza beka.



FEMINISMOA. Indarkeria matxistari buruzko formazioa jasoko dute Nafarroako hamabost taxilarik. Lau preskakuntza saio eskainiko dituzte Nafarroako Gobernuak martxan jarritako ikastaro pilotuan, “komunikaziorako eta pertzepziorako gaitasunak” landuz.

GHASSAN ABU SITTA ZIRUJAUUA: **“GAZAN GAUR OSATU DITUZUN HAUR ZAURITUOK HURRENGO GERRAN BERRIZ ZAURITUKO DITUZTE”**

Maiatzean, Gazan, hamaika eguneko azken guduan Israelgo armadaren bonba eta obusek 252 palestinar hil eta 1.900 zauritu dituzte. Umeak, horietako asko. Leherketetan eta etxeak gainera jausita zaurituak artatzen aritu diren medikuen artean ARGIAko irakurleek ezagutuko dute Ghassan Abu Sitta, 1987tik intifada edo borroka den bakoitzean Libanotik bertaratzen den kirurgialaria, gerrako zaurietan munduko erreferentzietakoa.

 PELLO ZUBIRIA KAMINO

Ghassan Abu Sitta doktoreak gerra modernoaren osasun ondorioak azaldu zituen 2017ko azaroko LARRUNen (*Gerrako ekologia, XXI. mendeko gatazka amaiezinen zauri berriak*), André Vltchek kazetariak elkarrizketaturik. Gazan sortu eta Libanoko eta Erresuma Batuko nazionalitatea dituen doktoreak, kirurgia plastikoan berezituak, kontatu zituen Iraketik Gazara, Sirian barrena esku hartzea egokitu zaien gerratan ikusi kalteak, “gerrako ekologia” berri bat osatzen dutenak.

Maiatzaren 10ean, Israelek Jerusalemeko Sheikh Jarrah auzoko biztanle palestinarren beren etxeetatik kanporatu nahian piztutako kaleko gatazka Gazara zabaldu zenean, Abu Sitta biltzar telematikoko batean zegoen hizlari, London School of Economics and Political Science unibertsitateak antolatutako “Ekialde Hurbileko osasunaren geopolitika” mintegian. Gazaren eta Israelen arteko gerra asimetrikoaren ondorioen ezagutzaile on, egun pare bat beranduago Gazan ari zen Médecins Sans Frontières elkartearekin, Munduko Osasun Erakundearen babesean.

Gazan errefuxiatutako familia batean sortua, 1987ko lehen intifadatik hona izan diren gudu guztietan joan da bolondres zaurituak artatzera. Azkena 2018ko martxoan, gazatarrek Israelerako Itzule-ra Handia antolatu zutenean, asteetan ostiralero armada juduari aurre eginez. Orduan medikuek tiroz zauritutako gaz-

teak hartatu behar zituzten nagusiki, balarik gaiztoenak –nazioartean debekatutak barne– ez hiltzekotan bizitarako maingu utzi zituztenak. 2021eko maiatzeko guduan, artilleria eta hegazkinez masiboki bonbardatutako adin guztietako zibilak izan dira biktimak ia guztiak.

Israeldarren suak kixkali ditu bi doktore ezagun, Abu Sittak aurreko krisietan lankide izandakoak. Bata, Ayman Abu al-Ouf, Al Shifa ospitaleko burueta-koa eta COVID-19aren kontrako kanpaina zailaren ardura zeramana –emazte Reem, beren hiru haurretako bi eta familiako kide gehiagorekin batera hila–, bestea, Moen al-Aloul neurologo eta psikiatra. Elkarrizketa guztietan horiek gogorarazten ditu Abu Sittak, salatzen Israelek kalkulu handiz egindako bonbaketa “kirurgikoak” planifikatzerakoan bilatzen zuela ahalik eta gogorren kalteak jendeak bizi diren auzuneak eta Gazako osasun sistema eskeletikoa.

Kirurgia plastikoan berezitutako doktoreak kazetariei azpimarratu die, lanean harrapatu duten Al Aoudeh ospitalean, Israelen aurtengo erasoak aurrekoetatik ezberdinak izan direla, masiboak: “Hemen ikusten ari zarete gizakiak eragindako hondamendi humanitario bat, ez baitu sumendiak, lurrikarak edo tsunamiak eragin: eremu hau nahita daukate setiatu eta eten gabeko krisi humanitarioan. (...) Zauri gehienak eragin dituzte etxebizitzak jendearen gainean hondoratzeak, leherketen suak;

bonben ezpal metalikoek eragindako zauriak daude, etxeko hormek azpian harrapatu dituen jendeen hezur hautsiak...”.

Hamas eta Israelgo armadaren arteko gudu labur baina bortitzean, haiek kohe-teak inoiz baino urrunago helaraztea lortu dute, hauek bonbaketa masiboz erantzun dute... baina biktimak eta kalteen zerrendak erakusten du gatazkaren asimetrikotasuna. Israelen hamar zibil hil dira, horietatik bi haur, eta 119 zauritu. Gazan hildakoak dira 253 palestinar, horietatik 66 haurrak, eta zaurituak 1.900dik goiti. Gazako 1.500 etxebizitza geratu dira erabat suntsituta, beste 1.500 ezin konponduagatik eraitsi beharko dituzte eta 17.000 gehiagok jasan dituzte kalteak.

Zaurituen gehienak beren etxe barruetan zeudela kolpatu dituzte. Gazako ospitaleetan familia osoak aurki daitezke gela ezberdinetan banatuta. Israelgo artilleriaren edo hegazkinen bonbapean zauritutako gehienak hiriaren erdiguneko auzoetan bizi ziren, ez aldirietan edo gunen jendetsuetatik aparte.

Zaurituen %40 haurrak izate horrek bereziki atsekabetzen du Abu Sitta, hainbeste gerra eta gatazkarako zauriak artatzen gogortutako zirujaua, badakielako umeek kalbario luzea hasi baizik ez dutela egin: “Lan honetan aritu bazara ohartzen zara horiek operazio eta arazo betetako urteak dauzkatela aurrean, gorpuzta hazten ari zaienez helduarora



GHASSAN ABU SITTA

Gazako Al Awdah ospitalean 2018ko martxoan. Orduan zauritu gehienek zangoak zekartzaten balaz zulatuak, gazteok hil gabe bizitarako ezindurik uzteko helburuz. Argazkia: Medical Aid for Palestina.

iritsi arte bata bestearen ondotik behar-ko dituztelako berreraikitze-kirurgiak”.

Zirujau ofizioaren gogorrera haur zaurituekin lan egitea dela dio, eta honengatik itzultzen dela aldi oro Gazara, Libanon dauzkan hiru haurrei gero arte esanda: “Zauritutako haurrak artatzea are gogorragoa da zuk zeureak badauzkazunean. Hemen gaur osatzen dituzu haur zaurituok, hurrengo gerran berriz zauritu ditzaten”.

Neskato bat du bereziki gogoan, horien artean, aurretik diabetesa zeukana eta bonba baten burdinazko ezpalagatik sudurraren erdia eta aurpegiaren alde bat galdu dituen. Horrelakoak dira gerrako zauriak, gerrako ekologia berezian lan egiten trebatutako kirurgialarien beharra daukatenak, guduaren bortitzak eragindako zauri konplexuetan berezi-

takoak –zirujau asko, gainera, osasun sistema ohiko batek behar dituenak baino askoz gehiago–.

NAZIOARTERIK EZ DAGO

Gerrako ekologiaren muturreko adibidea da Gaza: gerrak eragindako zauriak, gerra luze baten armatzat erabili-tako setio total batek lur jota utzi duen osasun sistemak ongi artatu ezin dituenak, miseriaren, gosearen eta zerbitzu publiko falta gorriaren erdian. Eta hori dena aski ez bazen, gehitu COVID-19 pandemia. “Horra zer lortzen duten gerrak eta setioak, jendeari ezartzen diote bizitzea ez den bizitza hau”.

Eta hor... gerrarik asimetrikoenean gerrako medikuntza egin: “Izter bat operatzeko torniketea erabili behar duzu, odol-hustea eragozteko mahuka

puzgarria. Hemen ez dago, kautxuzko zinta batzuekin ari gara. Zulagailurik ez da. Forzeps eta eskularruak aspaldi zaharkituak, edo gogortuak edo zulatzeko modukoak. Larruazala ebakitzeko bisturia behar izanez gero, 1950eko hamarkadakoa daukazu, esku erabiltzeko zahar haietakoa eta ez gaur ohiko den labana motorduna”.

Eta Palestinakoa konpontzeko itxaropenik bai? Menturaz nazioarteren presioan? “Ez dago nazioartea deitzeko modukorik, arbitro lana egiteaz ari bazara. Mundu arabiarra ere desagertu da; Siria eta Irak beren odoletan itota daude, Egipto eskualdean norbait izateko ahalmenik gabe, Golkoko estatuek alde batera laga dute Palestina Israel-ekin adiskidetzeko... eta besterik ez dago”. ●

ZINKUNEGI OPTIKA

Hernani 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com

f w

Nekane Terés

ESKUZABALA, ERASOAN ZEIN DEFENTSAN



TAKTIKOKI HOBEAK GARA ETA EMAKUMEENA GIZONEZKOENA BAINO ASKOZ JOKO POLITAGOA DA



Andosillako River Egan hasi zen eskubaloian. Handik Itxakora joan zen gaztetxotan, Itxakotik O Porriñora gero, Galiziatik Aula Valladolidera ondoren, eta Bera Beran egin ditu bere kirol ibilbideko azken hiru urteak. Bizitzan bezalaxe kantxan, kolpeak hartuagatik, aurrera. Gero ez badituzu danbatekoak gogoratuko, hobe momentuan bertan ere neurrian sufritu.



MIREN ARTETXE SARASOLA



DANI BLANCO

Eskubaloian nolatan?

Kasualitatez. Andosillako langile familia batekoa naiz ni. Etxe umilekoa, inoiz ezer falta izan ez zaigun arren. Gurasoak ez ziren kirolariak. Anaia futbolean hasi zen, mutil guztiak bezalaxe, eta neskentzat ez zegoen ezer. Baina herriko jende batek eskubaloi talde bat sortu zuen nik 11 bat urte nituela, eta nire lagun guztiekin batera eman nuen izena nik ere. Horrela hasi zen dena.

Gogoan dudana da partida guztiak galtzen genituela, askogatik, 40-3 eta horrela. Talde guztiak ziren Iruñerrikoak, edo Lizarrakoak, eta gu ginen Erriberako bakarrak, Mendabiakoekin batera. Haiekin sekulako lehia genuen, Erriberakoak ginelako, eta oso txarrak ginelako bai batzuk eta bai besteak. Baina orduan es-

kubaloia ez zen hain garrantzitsua. Ikasketak zeuden erdigunean eta eskubaloia eskolaz kanpoko denbora-pasa zen.

Eta bat-batean, Itxako.

Nire Andosillako entrenatzaileari Itxakora joatea proposatu zioten, kadeteen bigarren ekipoa entrenatzera. Eta hark herriko biri galdetu zigun ea berarekin joan nahi genuen. Eta nola esango genuen ba ezetz! Orduko Itxakori Super Itxako esaten zitzaion. Ohorezko dibisioko ekiporik onena zen, Champions-a jokatu zuen... Sekulako taldea zen, eta herri batekoa izanagatik, sekulako aurrekontua zuen. Lizarran oso harro zeuden haien eskubaloi taldeaz. Han dena zen horia, dena zen Itxako. Eta noski, haiekin entrenatzera deitzen nindutenean izugarri

gaizki pasatzen nuen. Hura lotsa! Maila diferentzia oso handia zen, gazteagoa nintzen... Asteazkenetan deitzen ninduten telefonoz, eta hura nahigabea! Baina nola esango diozu ezetz Itxakori? Lehen partida jokatu nuenean Itxakorekin, falta bat ateratzen behar izan nuen. Baloia aurrera botatzea besterik ez zen, baina besoa altxa nuenean arbitroak txistua jo zuen, eta urduritasunaren urduritasunez baloiak atzera alde egin zidan. Eta jabetza galdu genuen, noski. Hura lotsa...

Lizarrako marea hori hark amaiera izan zuen, ordea.

Taldea bera desagertu egin zen. Burbuila lehertzen ikusi genuen. Krisia iritsi zen, jokalariek ordaintzeko dirurik ez zegoen, klubak beste urtebete iraun zuen, baina



Nekane Terés

ANDOSILLA, 1992



Eskubaloï jokalaria profesionala izan da, atzora arte, esate baterako. Bera Bera eta Donostia utzi, eta Ataunen bizi da orain, erreka bazterrean. Etxea berritzen, etxeko animaliak zaintzen, eta etorkizuneko asmoei tiraka.

zorrak pilatuz... Jokalariek alde egin zuten, eta niri orduko bigarren entrenatzaileak deitu zidan esanez O Porriñon pibote bat behar zutela. Talde gaztea zen, ohorezko mailara igo berria, eta hara joan nintzen,itsu-itsuan. Ideiarik ere ez neukan nora nindoan! Baina bi aukera nituen: Lizarran geratu dena nola desagertzen zen ikusteko, ala hegan egin.

Eta O Porriñotik Valladolidera joan nintzen gero. Belaunetan bi lesio gogor izan nituen, eta bigarrena inflexio puntua izan zen. Nire buruari esan nion: hemen zure konfort zonan zaudete. Erosoa da, dena da erraza, zure onena eman beharrik gabe ere zure lekua bermatua duzu. Aldaketa behar duzu. Nire buruari gehiago eskatu nahi izan nion. Eta Aula Valladolid taldeko entrenatzailea Espainiako junior selekzioko gure entrenatzailea zenez, zuzenean galdetu nion ea pibote bat behar zuten Valladoliden. Eta hara joan nintzen.

Oso urte politikak izan ziren bi haiek. Semiprofesionala nintzen, eskubaloian jokatzen nuen, baina unibertsitatara ere joaten nintzen. Iruñean hasi nituen Gizarte Langile ikasketak, eta Galizian egon nintzenean ez-presentzial gisa ikasten jarraitu nuen, baina gogorragoa zen. Valladoliden berriz ere klaseekin segi nuen, eta zortzi urte behar izan banituen ere, ikasketak bukatu nituen. Eta bizimodu hori gustatu zitzaidan.

Han ere ezin gelditu, ordea. Beste zerbaiten bila etorri zinen bueltan Euskal Herrirantz...

Hark iraun behar zuena iraun zuen. Ondo dago horrela bizitzea, baina ezin du betirako izan. Eta Bera Beratik deitu zidatenean ez nuen zalantzarik eduki. Txikitako erreferenteak horietzek ziren guretzat, Itxako eta Bera Bera. Donostiakoa izan zen ekipo bakarra, krisiak krisi, talde onena mantendu zuena garai zailetan ere. Soldata duinenak eskaintzen dituen taldea da, eta horrek meritua du, zeren krisi garaian jokalaria onenek kanpora egin zuten alde, eta gu zer ginen? Neska gazte batzuk. Eta beste taldeetan bost sos eskaintzen zituzten bitartean, Bera Berak profesionaltasuna mantendu zuen. Profesionaltasuna ekonomikoki zein egitura aldetik. Erreferente bat da. European jokatzen duena, Championsa jokatzen duena... Eskakizun maila ere askoz altuagoa da trukean, noski.

Berriz erosotasuna utzi eta nire buruari ahalegin bat gehiago eskatzea izan zen hona etortzea. Lehen hilabeteetan izugarri gaizki pasa nuen. Beti da zaila fase berriei ekitea, lekura egokitzea, jendea ezagutzea. Baina, horrez gain, nire gorputza ez zegoen ohituta halako egur fisikora. Hemen jokalaria bati eskatzen zaiona ez zaio beste inon eskatzen. Eta esan dizut lehenago niri ez zaidala korrika egitea gustatzen! Ba pentsa, Anoetako izkina guztiak ezagutzen ditut orain. Etorri berritan beti nengoen nekata. Goizean entrenamendua, arratsaldean entrenamendua, eta ni nekata. Nire gorputza aldatuz joan zen, eta orain jarrita nago erritmo horretara. Eta noski, saria ere neurrikoa da: European jokatzea, estatu mailako titulu guztiak irabazteko lehian ibiltzea...

Presioa ere arabera izango da, ezta?

Bai, bai talde bezala eta bai jokalaria bezala ere. Bera Berarengandik garai-pena baino ez da espero. Beti. Bikaintasunean erregularra izateak ahalegin handia eskatzen du. Eta jokalaria bezala ere, taldean lekua egitea ez da erraza. Hasieran bi pibote ginen. Yunis Camejo eta biok. Eta gero Judith Sans ere etorri zen, lehendik taldean egondakoa. Eta pentsatu nuen, "Akabo. Ez duzu minutu bakar bat ere jokatuko". Amorrua eman zidan, gainera, kazetari batek galde-tzeak ea nola bizi nuen "hirugarren pibote" izatea. Ni ohartzen nintzen, jokalaria aldaketetan askotan azken aukera nintzela, baina pentsatzen nuen entrenatzailea momentu jakin horretan jokalaria baten ala bestearen ezaugarriak ari zela aukeratzen, ez nuen pentsatzen zenbatgarrena ote nintzen ni. Ez nuen lehia horrela sentitzen. Eta eskubaloiaz ezer ere ez zekien kazetari hark hain gordin esateak mina eman zidala go-goan dut. Baina orduan ere pentsatu nuen: "Irabaziko dut nire lekua". Eta halaxe izan zen.

Nola lortzen duzu halako presioa sorbaldetan duzula konfiantza hori edukitzea?

Nik konfiantza handia izan dut beti nire buruarengan. Oso langilea naiz. Oso konstantea eta diziiplina handikoa. Beti pentsatzen dut iritsiko dela nire momentua eta prest egongo naizela une hori baliatzeko. Bizitzan ere halaxe gertatzen da. Gauza onak eta gauza txarrak pasako zaizkizu, eta zure esku egongo



den bakarra izango da zein jarrera hartu erabakitzea. Esan beharrik ez dago oso une txarrak bizi izan ditudala ibilbide honetan, eta negar mordoa egin dudala ere bai. Baina beti sinetsi izan dut etorriko zela zerbait ona. Gainera, gustatzen zait zer etorriko den ez jakitearen sentsazio hori ere. Badu bere grazia. Batez

ere ez badaukazu ez saiatu izanaren damurik. Nik badakit ahalegindu naizela, nire onena ematen saiatu naizela, eta sinesten dut iritsiko dela erakutsi beharrekoa erakusteko momentua. Sinesmen horrekin egin izan dut aurrera beti, eta hala gertatu da. Orain atzera begiratzen dudanean gauza onak bakarrik gogoratzen ditut, hori ere egia da. Oso oso momentu gogorak egon direla badakit, baina, ez ditut horiek bizien gogoratzen. Lausotu egiten zaizkit. Batzuetan entrenatzen ari naiz, eta nabaritzen dut ez nagoela ondo, eta nire buruari esaten diot: “Bihar ez zara gogoratu ere egingo eta! Aldatu aurpegi hori!”.

Orain, aldiz, gorputzak eta buruak gelditzeko esan omen dizute.

Buruak gehiago! Orain esku artean ditudan kontuek ilusio gehiago sortzen didate eskubaloiak berak baino. Ataunera etorri gara bizitzera nire bikotekidea eta biok, etxe zahar hau konpontzen ari gara, baratzea daukagu... Ataunera iritsi

eta pozik jartzen naiz. Erreka bazter honen bakeak on egiten dit. Eta zertan ukatu, 30 urte ere badiutut eta gorputzak antzematen du; bidaietan, esaterako. Lehen erraz egiten nituen hamabi ordu autobusean gaur eta beste hamabi bihar.

Eta orain nekea nabaritzen dut. Lesioek ere gero eta beldur gehiago ematen didate.

Denboraldia hasten dugun bakoitzean horixe baino ez dut eskatzen. Ez dezadala minik hartu. Nire burua ez dut hain fresko sumatzen. Gauza negatiboei aurre egiteko energia gutxiago aurkitzen dut nire baitan. Eta konturatzen naiz beste gauza batzuek ematen didatela indarra. Eta bizitza aldaketa eskatzen dit barruak.

Oso gutxi kotizatu dugu. Profesionalak garela esaten da, baina profesionalak eta profesionalak daude. Emakumeok mileuristak gara, kasurik onenean”

Eskakizunak ere betetzen zailagoak egiten zaizkit. Entrenamenduez gain, udan, esaterako, zaindu beharra daukagu. Abuztutik maiatzerako kontratuak izaten dira, eta ez dugu sosik jasotzen bi hilabetez, baina hor aritzen gara korrika, ariketak egiten eta jaten duguna zaintzen, ordainduko baligute bezalaxe. Eta gero, bazoaz banketxera hipoteka bat eskatzera etxea erosteko, eta zure lan-ibilbidearen agiria eskatzen dizutenean, latsa pasatzen duzu. Oso gutxi kotizatu dugu guk. Profesionalak garela esaten da, baina profesionalak eta profesionalak daude. Emakumeok mileuristak gara, kasurik onenean. Eta ez daukagu sindikaturik, ezin dugu negoziatu. Saia-tzen gara minimo batzuk eskatzen, baina horraino. Oso ohituta gaude ia edozer onartzera. Ez dago inor gu babesteko. Ez enpresak, ez administrazioa.

Lan ibilbide normal bati uko egiten ari gara eskubaloian jokatzeari, beste aukera batzuk edukita. Gutako gehienok ditugu ikasketak. Ni gizarte langilea naiz. Beste batzuk erizainak dira, fisioterapeutak... Eta hau oso polita da, baina, ezin du luzerako izan. Zaila da dirua aurrezte. 20 urterekin ez da arazo bat,

eta 25ekin ere ez. Baina, 30 urte dituzu eta ez duzu ikasi duzun horretan inoiz lan egin. Zein da zure lan esperientzia? Esku baloian jokatu dut. Nola? Ba horixe, esku baloian aritu naizela. Jendeak ez du ulertzen. Jendearentzat ez da lan bat. Eta guretzat bada. Gaizki ordaindua? Baldintza kaskarrak dituen? Bai, baina lana da.

Gogorra behar du hain maila gorenean egoteko motibazioa mantentzeak.

Sakrifizioa handia da eta saria ez da neurrikoa. Ezta ikusgarritasuna ere. Egiten dugunaz gu eta gure ingurukoak baino ez gara ohartzen. Erreginaren kopa irabazi genuenean udaletxean egin zitzaizgun harrera ikusi besterik ez dago. Ez gara futbolariak, eta emakumeak gara. Ez gaude egunkarietan edo telebistan. Kanean jendeak ez gaitu ezagutzen. Ez Donostian, ez Andosillan eta ez Ataunen. Eta ni horrekin oso pozik bizi naiz, baina ez luke horrela behar. Eta beti entzuten dugu berdina: gizonen jokoak ikusgarriagoa da, jauzi handiagoak egiten dituzte... Emakumeena askoz politagoa da! Ez du zerikusirik. Taktikoki askoz hobeak gara eta partidak interesgarriagoak dira. Baina gizonen kirola hobe dela esateko ez

dago justifikatu edo argudiatu beharrik. Horrela da eta kito. Denek dugu barnertuta. Kirolean eta kirolek kanpo.

Gero harritzen dira adin batetik aurrerako jokalariek emakumerik ez dagoelako. Gizonak badaude, lehenik eta behin, askoz gehiago irabazten dutelako. Eta bestetik, esaterako, gurasotasun proiektu batekin bateragarria egiten zaielako eskubaloia. Haurrak dituzten eskubaloia jokalariek profesional asko daude; aitzak dira. Liga nordikoetan, esaterako, amatasuna kirolari bizitzaren parte da. Adosten dute haurdun geldituko direla, soldata jasotzen jarraitzen dute, eta sekulako baliabide teknikoak jartzen dizkiete errehabilitazio fisikorako. Haurrak zaintzen dizkiete entrenatu bitartean, selekzioarekin kontzentrazioak daukaten haurrak eraman ditzakete. Badaude nire adineko jokalariek Norvegian bi haur dituztenak eta maila gorenean jokatzen dutenak, inor harritu gabe. Hemen horretatik argi urtetara gaude. Zure haurra guk zaindu? Erotu al gara?

Jendea haserretu zaizu pozik zoazelako eta ez duzulako malkorik bota.

Faktore asko elkartu dira, eta uztea era-

baki dut. Tristurarik gabe. Ez da amatasunagatik, ez diruagatik ez ezeragatik. Oso etapa polita izan da, baina bukatu dela sentitzen dut. Ilusio maila berean egon banintz jarraitu egingo nukeen. Kontua da orain beste zerbaitek ematen didala bizipoza. Eta bizimoduari eskaini nahi diot denbora. Lana aurkitu nahi dut. Gizarie langile izan. Edo beste edonon lan egin. Supermerkatu batean edo beste edozein lekutan. Honetxetarako garaia zela sentitu dut eta pozik nago hartutako erabakiarekin. Erabakia nik hartu dudalako eta nik nahi izan dudanean hartu dudalako. Eduki nezakeen beste urtebete kontratua sinatuta, eta gogo gutxiagorekin ere jarraitu... Baina ez daukat jarraitzeko gogorik eta kito. Honaino!

Noski kostatzen dela zure bizimodua izan dena atzean uztea. Aurreko urteetan ere esan izan dut: "Aurten utziko dut, aurten utziko dut...". Zortzi urte daramatzat hori esaten. Baina iristen zen agur esateko ordua, eta ez nuen nahi. Orain arte ez dut nahi izan, eta orain bai. Horrela izaten dira gauzak! Egoera oso politak bizi izan ditut, jende zoragarria ezagutu dut... Zoriontsu izan naiz. Eta aurrerantzean ere zoriontsu izateko asmoa daukat. ●

GIPUZKOAK BADU

ETORKIZUNA



Zu bezalako 720.000 gipuzkoarrei esker,
European desberdintasun maila txikienetarikoa
duen lurraldea izan nahi du Gipuzkoak.

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa



ETORKIZUNA
ORAIN
Es futuro

ETORKIZUNA
ERAIKIZ
#GipuzkoarKonpromisoa



Oposiziogileen artean klaseak daude



ASIER BLAS MENDOZA
EHU-KO IRAKASLEA

XXI. mendeko erregimen autoritario gehienek hauteskunde janzkera liberalak hartu dituzten moduan, estatu kolpeek geroz eta gehiago prozedura bigunak erabiltzen dituzte. Modu berean, estatu-aparatuek eta botere faktikoez geroz eta gutxiago erabiltzen dituzte gobernu deserosoen edo sistemen aurkako oposizioko kideen kontrako desagertzeak edota erailtzeak, izan ere, askotan hauen kontrako borrokan eraginkorragoa izaten baita heriotza zibila fabrikatzea.

Erregimenek oposiziogileei aurre egiteko hiru estrategien artean hautatu edota eskalatzen dute: bazterketa soziopolitikoa, heriotza zibila eta jazarpen fisikoa (desagertzeak edota erailtzeak).

Bazterketa soziopolitikoa da estrategia bigunena eta eguneroko *normaltasunean* egikaritzen da. Estatua indartsua bada eta oposiziogileak ordezkatzeko duen mehatxua erregimenarentzat txikia bada, besteak beste babes sozial gutxi duelako, ohikoena da bazterketa soziopolitikoa aplikatzea. Oposizioa toleratua da, baina estatuak zelatatu eta presioa egingo dio, eta hedabideetarako sarbidea itxita edo oso mugatua izango du.

Bazterketa jasaten duena Mendebaldekoa bada bozgorailurik gabe geratzen da etxean eta kanpoan. Kasualitatez oihartzun pixka bat lortzen badu kanpoan, ez du eragin handirik Mendebaldeak kontakizuna kontrolatzen duelako hegemonia kulturalari eta mediatikoari

Irakurleek ondo ezagutuko dute Aleksei Navalni xenofoboaren kontrako jazarpena, edo eskuin muturreko Roman Protasevitx bielorrusiar kazetari eta Azov batailoi neonaziko miliziano ohiaren kontrakoa

esker. Baina oposiziogilea Mendebaldeak begitan hartua duen herrialde batekoa bada bazterketa soziopolitikoaren estrategia ez da oso eraginkorra. Oposiziogilea barruan isilarazia egon arren, kanpoan Mendebaldeak bozgorailua jarri diezaioke oihartzuna etxera iritsi dadin, erregimenarentzako mehatxuaren tamaina handituz.

Oposiziogileak erregimenari egin diezaiokeen mina handia bada, salbuespenezko jazarpen fisikoaren estrategia mahai gaineratzen da. Halere, geroz eta gutxiago erabiltzen da izan dezakeen *bumeran efektua*-gatik. Horregatik, oposiziogilea indartsua bada, modan dagoena da *normaltasunaren* baitan aurreikusitako salbuespeneko prozedurekin tratatzea heriotza zibila gauzatzeko. Auzipe-


tze judiziala eta lintxamendu mediatikoa izan ohi dira teknikarik eraginkorrenak. Oposiziogilearen izena zikintzea da helburua eta, bide horretan, kartzelaldiak behar badira egongo dira arrazoiarekin edo arrazoi gabe. Estrategia honek eraginkortasun gradu desberdinak daude, Mendebaldeko herrialdeek praktikatzeko dutenean oso arrakastatsuak dira, NATOko kontrol pean dauden herrialdeek egiten dutenean ez dira hain eraginkorrak eta Mendebaldeak izendaturiko etsaiek egiten dutenean gutxienez asko sufritzen dute propaganda gerrarekin.

Horrela, gure irakurleek ondo ezagutuko dute Aleksei Navalni xenofoboaren kontrako jazarpena, edo eskuin muturreko Roman Protasevitx gazte bielorrusiar kazetari eta Azov batailoi neonaziko miliziano ohiaren kontrakoa. Aitzitik, ez dute ezer jakingo Lituaniako Herriaren fronte Sozialista alderdiko liderraren Algirdas Paleckis-en kartzelatzeaz eta epaiketari buruz; edo Poloniako Mateusz Piskorski Aldaketa alderdiko lider eurasianistak eta antikapitalistak pasatako hiru urteko kartzelaldiari buruz. Edonola ere, ezer gutxi gaudin-tzen du Julian Assangeren heriotza zibil perfektuaren jokaldia. Kazetari batek Amerikako Estatu Batuek buruturiko krimenei buruzko informazioa guregana helarazteagatik sentitu du gordinki zer den heriotza zibila, bere izena zikinduz, auzipetuz, espetxeratuz, isilaraziz eta agenda mediatikotik ezabatuz. ●

Epikaz



BEIA SALABERRI
IRAKASLEA



PAULA ESTÉVEZ

Urteetan Garazi eta Baigorri aldean, Ipar Euskal Herriko beste hainbat lekutan bezala, memoria bilketa lanak burutu dituzte grabaketa bidez hainbat antolakundek: kultur erakundeak adibidez, edo Kanaldudek, edo batzuetan ikertzaileek, dela emankizun baten kariatara, dela gaiaz erakusketak antolatzeko, dela ikerketen elikatzeko. Lekuko horiek jadanik lekuko zirenak dira, gehienak mundu honetatik lekutuak direlako.

Lekukotasun horien entzuteko eta lantzeko parada dut noizbehinka, azken asteetan, eta aitortu behar dut denbora pasa zoragarria dela. Izan ere, dokumentu horiek altxorrak dira, maila anitzetan.

Bata da mundu ikuskera. Jende horiek deskribatzen duten bizia 'batua' da. Hasteko, kontzientzia handia dute lurraldetasunaz, inguratzen dituen guziaz, eta dena da leun, argi eta bat. *"Mendi hauek nik nituen ezagutzen (...) Ene lekuak ziren hauek, nitarik behar zuten pasatu zerbait egin nahi zutelarik"*. Lurralde batean daude, auzo eta herrikideekin harreman eta dependentsia estuan, badakite kulturalki bereiz direla, nahiz eta kultura hitza ez sekulan

erabili. Funtsean hitz intelektual horietarik bakar bat ez dute ahoskatzen: kultura, nazioa, identitatea, gizarte kohezioa, erabaki, garapen eta holakorik ez da agertzen. Bestelakoak dira hitzak. Kontzeptuak bizitzen dituzte. Mendiak, herriak, auzoak, etxeak, lanak, haiek eta gu. Biziki argiki dituzte bereizten 'haiek' eta 'gu' izendatuen atzekoak. *"Hemen guk hola egiten genuen"*, *"Jakín ezazu bizia ez zela goxoa e! Baina elkarrekin ari ginen denak berdinki"*. Liluragarria da lekuko horien betetasuna. Bai, deskribatzen duten mundua, herenegunekoa da. Haatik badute osotasuna, borobiltasuna, konpaktuak dira. Haien aldean puzzle barreiatuak gara.

Aparta da hizkuntza. Aspalditik entzunak ez nituen hitzak eta espresioak entzuteko parada dut, eta erranaldi itzuliak, osoki euskaraz pentsatu adieraz-moldeak, erdararen kutsurik batera gabekoak dira. Bazen jende arrunta, gutxi eskolatua, edozein gairi buruz euskaraz aritzeko gauza. Gaur arraroa bihurtu da gaitasun hori, bat-batean gaitati buruz ederki jarduteko trebezia. Hots, hitz galduak. Eta aldi berean bada xantza horiek salbatu ahal izatea, artxi-bo numerikotan baizik ez bada ere.

Azpimarragarria, epikotasuna. *"Behin, hola, De Gaullek telefonatu zigun, guri, laguntza behar baitzuen. Bazter hauetarik azkenean alemanak harro gintzan galdegin zigun"*. Egia ala denboraren eragina, auskalo, haien bizia epopeia moldean aurkezteko duten joera nagusitzen da. *"Guardek ez gintuzten sekulan harrapatzen, sekulan"*. Dena da handi, urrun, heroiko, eta aldi berean hurbil eta xume, eskukoa, menperatua, garbi eta sinplea. Lotua da lekuari? Lotua da garai historikoen berezitasunari? Oronen buru, historia norberarenetik ez ote da hasten?

Bukatzeko, preziagarria, detaile zenbaitek kondairari alde fantastikoa ematen dio. *"Kontrabandako behiekin, (Ezterenzubitik) Bilbaora joaiten ginen, oinez. Igande arratsaldean parti eta biharamunekoz zazpietan heltzen ginen. Bilbaora"*. Ez diet nik istorioaren detaile bakar bat aldaraziko, ez diet erranaraziko besterik, diotena bere horretan hain da osoa: azken finean, denek gendake bizi nahi herri ernegatu horretan, bat eginik kreazioarekin, gure harremanez libre, joan jinez ere.

Pandemia garaietarik landa, edozein hondamendiren ondotik bezala, nostalgikak besarkatu ohi gaitu, omen. ●



**RUBEN SÁNCHEZ
BAKAIKOA
IRAKASLEA**

Periferiatik adeitasunez

Joan den astean, Gorka Bereziartuaren txio batek nire arreta erakarri zuen: “Gipuzkoan mundu guztiak euskaraz naturaltasun genetiko moduko batekin egiten duela dioen mito hori ere igual pixka bat eskuetatik joaten ari zaigu #justsayin”. Zerk eragin zuen txio hori ez dakit. Nik lotu nuen aste horretan bertan ARGIA eta aste bat lehenago *Alea*-n argitaratutako *Euskara urtez urte ontzen Arabako Errioxan* erreportajearen Edurne Azkaratek botatako honekin: “Oso interesgarriak iruditzen zaizkit garatzen ari diren periferietako euskal nortasun batzuk: onartzen duzunean ezin zarela eredu den horretara iritsi, ez zarelako han jaio, ez zarelako euskaldun genetiko bat”.

Bereziartuak Euskalerrria irratan egindako kolaborazio batean idazten zuen horretaz: “Bizipen periferiko horien eskutik, sineskeria bat ere zabalitzen ari da: euskarak badaukala zentro bat non hizkuntza ia erabat normalizata dagoen”. Nik ez dut uste (eta periferiako gehienek ere ez, nik uste) euskara normal-natural-“arnas oneko” bizi den Arkadiatxoak daudenik, bai uste dut zentroan (eta edonon, baina gehiagotan gertatzen da zentroan) euskaldun batzuek Arkadian bizi direla uste dutela, edo behintzat, Arkadiagoan. Eta Arkadiaren uste(l)a txarra (izan) da oso euskararen normalizaziorako. Horretaz

ari da Gorka bera artikulu berean: “Nire herrian euskaraz dakitenen eta benetan hitz egiten dutenen artean amildegi bat dago: oraintxe bertan, dauden baliabideekin, gaiak pizten duen interesarekin, euskaldunei eurei inporta zaienarekin, zeharkaezina dirudiena”.

Andoni Landa nuarbetar errioxartuak erreportaje berean zioen Azpeitiaz –non ahozko erabilera oso handia dagoen–: “Tabernan han dago *Berria*, ez dakit zenbatek ukituko duen”. Euskara jakin bai baina erabiltzen ez dutenak, edo euskaraz ikasi duten baina *Berria* ukitzen ez dutenak, biek “euskaldunak” direla uste osoa dute, ez baskoak, euskaldunak baizik. Bereziartuak zioen gisan, ez dute amildegi handirik ikusten *Berria* ez irakurtzean, edo solasaldi gehienak erdaraz izatean. Eta arazorik egotekotan, eurek ez, euskara batuak du. (Bitxia da haiei kontra egitean eta batuaren defentsan euskaldunberriak aintzat hartzearen arrazoiak izatea beti lehenetakoa, eta ez *Berria*, film bat, liburu bat, telebista, internet gozatu ahal izatea...).

Euskara hizkuntza gutxitua izanik, denei eskatzen digu ahalegina, kultur sortzaileei bai, baina hartzaileei ere bai; eta batzuk oso hartzaile pasiboak dira, eta eurak dira gehiengoak. Gehiengo euskaldun bat, Arkadia menditsu berde batean, basamortua periferian dagoela uste duena. ●



**EDU ZELAIETA ANTA
IDAZLEA ETA IRAKASLEA**

Fikzioaren gramatika I: (haiek)

Fikzioa omen da komunikazioa, norberaren interpretazioa ez bezala. Fikzioa omen da egia, gezurra ez bezala. Fikzioa omen da errealitatea, fikzioa bera ez bezala.

A. Alieva

Gero eta jasangaitzago gertatzen zaizu (parentesi arteko) “haiek” herbal maiztu hori entzutea, ikustea. Hala egiten dizute solas kamiseta eta grafiti aunitzek, bai eta inguruan isiltzen ez diren aho ugarik ere, diskurtso kritiko eta beraz ezberdin baten ustean: “engainatuak gaituzte” eta “dugun pizarra kendu nahi digute” gaur goizeko bi adibide *natural* izan dira.

Fikzioaren gramatikaren ikuspegitik, bistan denez, ezin errazagoa da (haiek) erabiltzea. Argi dago munduari kalte egiten dion denaren erantzule eta errudun (haiek) direla, eta (haietaz) ari garenean ez dugu zehaztu behar nortaz ari garen, gauza aski jakina delako. Halaber, abantaila argiak dakartza, gainerako solaskideekiko konplizitatean, (haiek) baliatzeak; izan ere, (haiek) beti da urruti. Lauso. Eta, bereziki, eroso.

Alabaina, posible ote da lehen pertsona hirugarren pertsona bihurtzea, singularretik pluralera aldatzearekin batean? Eta, hala izatera, nor dira (haiek) gutaz ari direnean? ●

Hormarik ez, faborez



INMA ERREA
IDAZLEA

Ebidentzia batzuk ez dira ikuserrazak. Egunkari nafar batek USE unibertsitate sartzeko ebaluazioko probak argitaratu zituen ekainaren 2an, ikasleek egin zituzten egun berean. Titularrak erroka jotzen zien irakurleei: gaindituko zituzten batxilergoko ikasleek egingako azterketak? Espainiako Historiako estekan egin nuen klik. Gaztelaniazko azterketa besterik ez zegoen. Ikasle euskaldunek egindakotik, arrastorik ez.

Hala ere, egunkariak berak zioenez, egun hartan Nafarroan azterketak egin zituzten 3.869 ikasleetan 1.068k euskaraz egin zituzten, % 27,6k.

Egunkariak (euskararen aldekoa) euskarazko probak ere argitaratu izan balitu –berria gaztelaniaz emateak ez zion hori galarazten–, irakurleek errazago irudikatuko zuten Nafarroako errealitate elebiduna, non ikasleetatik laurdena baino gehiago gauza baita USE euskaraz egin eta unibertsitatean euskaraz ikasteko.

Adibide hutsala dirudi, baina hizkuntzen arteko bereizketa etengabearen etsenplua da. Hedabideetan, batik bat, eta bestela ere.

Euskararen
“maitaleek” ere,
asmo txarrik gabe,
zintzoki betetzen
dute hizkuntza-
bereizketaren arau
“naturala”

Gertatzen den orotan –euskaraz idatzitako liburuez euskaraz bakarrik mintzatzen denean kasu–, hizkuntzak elkarrengandik bereizten eta urruntzen dituen beira lausotuzko horma moduko bat begitantzen zait, zurruna, deformatzailea, hizkuntzei eta hiztunei elkar ikustea oztopatzen diena. Hizkuntzen arteko komunikazioa galarazteaz gain, hormak euskararen errealitatea –USEko euskarazko probak edo euskal li-

teratura– ezabatzen du erdaldun elebakarren begien bistatik, euskararen presentzia itxuragabetuz. Elebidunok arazorik gabe egin dezakegu barre Iker Laurobaren hitz-joko elebidunekin, baina erdaldun elebakarrek segitzen dute pentsatzen euskarak ezin diela eskaini interesgarritik ezer.

Hizkuntza-bereizketa zorrotz hori –euskarazko gauzak euskaraz, eta gainerakoak erdaraz– naturalizat jotzen da: euskaldunok gutxiago gara eta toki txikiago bat behar dugu, eskusiboa guretzat. Bereizketa-egileak, gainera, ez dira, soilik, euskararen arerioak: euskararen “maitaleek” ere, asmo txarrik gabe, zintzoki betetzen dute hizkuntza-bereizketaren arau “naturala”. Ohartu gabe naturalak diruditen gauza asko eta asko ez direla hain natural.

Euskararen arerioak aldeko bihurtzen saiatu ordez, aldekoen joera bereizleak deseraiki behar dira –esaterako, hedabideetan–, begi-bistakoak ez diren gauzak ikusarazi eta zenbait jokamolderi naturaltasun-marka kendu. Beirazko hormak hautsi, Laurobaren txisteak lagun. ●

OPARITU ARGIA
ZAINDU NAHI DUZUN HORRI

ARGIA *Puska dezagun izotza*

Bizitzaren ederra loratu dadila

Jakoba Errekondo

Loreak etxeko poza dira. Zaintzen asmatzeko beharrezkoena, lore bakoitza ezagutzea da. Liburu honek hobeto zaintzeko gakoak emango dizkigu: zein landare aukeratu txoko bakoitzerako, gaixotasunei nola aurre egin, ureztaketa, ongari naturalak nola egin eta nola birlandatu.



25€

Orri kop.: 248

BIZI BARATZEA

ARGIA

EROSTEKO: argia.eus/azoka 943 37 15 45



NOLA EMAN KLASEA KANPOAN

Leku itxietan errazago kutsatzen garela jakitun, eskola asko klaseak aire zabalean ematera animatu dira pandemia garaiotan. Baina ikasgela kanpora ateratzea ez da ikasgelan egiten duguna errepikatzea edo naturan txango hutsa egitea. Behin kanpoaldea konkistatuta, nola atera etekina pedagogikoki? Nola landu curriculuma eta konpetentziak kanpo espazioetan eta aprobeztatu inguruak eskaintzen dizkigun baliabideak? Ez da erronka makala, baina ederra da emaitza.

 MIKEL GARCIA IDIAKEZ

Urtetako inertziak apurtzea zaila delako, edo ikastetxeetan borondaterik egon ez delako, edo administrazioak eta sistemak trabak jarri dituztelako... ez dira gutxi ikasturte honetan ere lau paretetara kondenatuta jarraitu duten ikasleak, baina pandemiak akuilaturiko joera bat ere nabarmendu da: kanpo espazioetara (gehiago) atera dira eskolak, eta aire zabalean aritzeko aterpez hornitu dituzte jolastoki eta inguruak. “Hezkuntza berrikusteko parada eman du pandemiak, eta aukera bezala planteatu da kanpora ateratzea; hainbat irakasleek esan digu ikastetxeak duen lorategi edo zelaira ateratzen zirela ume zirenean, eta orain ikastetxe berean irakasle direlarik, urte luzez ohitura galduta egon ostean, berreskuratu egin dutela irteteko joera”, kontatu digu Maialen Sistiagak. Teknikaria da Kutxa Ekoguneko baso-eskolan, eta eremu berdeetan klaseak emateko gakoan inguruan formakuntza ematen die hezitzaileei. Kanpora irteteko sortu den grinaren isla, irakasleek gain guraso talde batek ere parte hartu duela formazio horietan, Zaldibiako Lardizabal ikas-

tetxean hezkuntza-komunitate osoak egin duelako bat natur eremuak eskola bihurtzeko apustuarekin.

Naturaren aldeko diskurtso “hutsal eta erromantikoarekin” kritiko agertu zaigu Dani Zuazagoitia, kanpora irtetea bere horretan ez baita ezeren berme, aurretik ez badago formakuntza eta lanketarik. Irakasle askok txangoa bera baino ez dute helburu

Sistiagak dio egon daitezkeen beldurrak eta aurreiritziak uxatzeko balia-

garria izaten ari dela mugimendu hau guztia. Azken finean, ikastetxe eta adin guztietako ikasleek egin dezakete kanporako eta natur guneetarako bidea, hirietan bizi arren beti dugulako eremu berderen bat ez oso urruti. Basora joan gabe ere, parkeak, lorategiak, plazak... baliabidez jositako espazioak dira, bertan zer eta nola egin jakinez gero.

ZERGATIK ATERA?

Natura bertutez jositako eskola dela entzutera ohitu garen honetan, maiz nagusitzen den diskurtso “hutsal eta erromantikoarekin” kritiko agertu zaigu Dani Zuazagoitia, eta gogoratu du kanpora irtetea bere horretan ez dela ezeren berme, aurretik ez badago formakuntza eta lanketarik: basora txangoa egitera atera ziren hainbat irakasleri galdetuz egindako ikerketa bat aipatu digu, eta nola ondorioztatu zuten irakasle horietako gehienek ez zutela pentsatuta zer egin edo zer behatu basoan, txangoa bera zutela helburu, “baina txangoak ez dizu bermatuko ezagutzea baso baten ekosistema nolakoa den, ez dizu lagunduko pentsamendu holistikoa garatzen



Sarri kanpo espazioek balio dute ikasleek (eta irakasleek) eskuekin aritzeko beldurra gal dezaten.

ARGAZKILARIA: DANI BLANCO

eta ez dizu baliabiderik emango jakiteko haritza ala eukaliptoa nahiago duzun, ez baduzu horren inguruko lanketarik egin". Zuazagoitiak zientzia esperimentalen didaktika irakasten du Gasteizko Magisteritza Eskolan, eta eremu berdeak irakaskuntzan baliatzeko oinarriak ematen dizkie etorkizuneko hezitzaileei.

Kanpo espazioak ganoraz eta koherentekei erabiliz gero, orduan bai, hezkuntzarako altxorra direla dio Zuazagoitiak: "Egia da lana eta ahalegina eskatzen duela curriculuma kanpora ateratzek, baina gure ikasleek ikastea bada helburu nagusietakoa, baloratu dezagun zer ari diren ikasten gaur egun eta hori hobetzea ote daukagun beste testuinguru batzuk baliatuz. Eta ebidentziek adierazten dute kanpo espazioetan ikaskuntza prozesua hobetzen dela: frogatuta dago kanpoan gaudenean jarrera ezberdina dela, baita gure arteko harremanak ere –ikasleen artean, baina baita irakasle eta ikasleen artean ere–, giroa hobea dela finean, umorea hobetu eta emozio positiboak sortzen direla, eta badakigu ikaskuntza prozesuak emozioetan oso errotuta daudela. Horrek guztiak atxikimendua handitzen du espazio horrekiko, eta bertan jaso dituzten esperientziak eta ezagutzak (kontzeptualak eta prozedurazkoak) hobeto berenganatzen

dituzte ikasleek. Kimikaria naiz eta zientzia fakultatean lanean aritu naizenean, inoiz ez zait ikaslerik etorri galdetuz ea zer moduz dagoen laborategia; aldiz, ikasle askok galdetu digute zelan dagoen

“ Begirada aldatuz gero, konturatuko gara zenbat baliabide ditugun aire zabalean irakaskuntzarako, basoan daudelako proportzioak eta bolumenak, dagoelako historia, natur zientzietarako makina bat aukera, ikerketarako gaiak...”

María Mayorga

baratzea, edo urmaela, edo intsektuen hotela... eta horrek esan nahi du lotura emozional bat eraiki dutela, balio bat ematen diotela horri". Gainera, azalpen abstraktuak baino hobeto ulertzen dira maiz kontzeptu eta eragiketak, ikusi,

ukitu eta manipulatu ditzakegunean.

Kanpoan jardutearen balioa berretsi digute bide hori hautatu duten ikastetxeek. Errenteriako Orereta ikastolan pandemiak eman die azken bultzada, eta ingurura atera dira Lehen Hezkuntzako ikasleak, curriculuma errealtatean bizi, esperimentatu eta aztertzeko. "Proiektuak aritzea eta ikasitakoa errealtate-ra hurbiltzea da azken urteetako joera eta metodologia hori bete-betean dator kanpo espazioetan aritzearekin. Azken finean, konturatu gara errealtatearekiko lotura sustatuta paperean baino errazago ikasten dutela haurrek, eta gainera jardun hauek giroa hobetu dute", kontatu du Jone Briñas irakasleak. Ahalegina izan dela aitortu digu, erosotasunetik atera eta "ikasgelako zementuak irakasleoi ematen zigun oreka desoreka bihurtu" behar izan dutela, baina pozik daudela, "ikusitako dugulako ikasleentzat ekarpen handia izan dela kanpora irtetea".

Pandemiaren aurretik jada irteten ziren Altzoko Imaz Bertsolaria herri eskolan, Haur nahiz Lehen Hezkuntzakoak, eta eurak ere konbentzitu daude hori dela bidea: ikasturte bakoitzean proiektu bat diseinatu, curriculuma proiektu horretara ekarri eta kanpo espazioetara egokitu. Esperientziak erakutsi die funtzionatzen duela.



D. ZUAZAGOITIAK UTZIA



ORERETA IKASTOLA

Baratzea (ezkerreko irudian, Arabako campusean Zuazagoitiak erabiltzen duena) irakaskuntzarako baliabidez betetako eremua da. Goiko irudian, Orereta Ikastolako haurrak. "Proiektuka aritzea eta ikasitakoa errealitatera hurbiltzea da azken urteetako joera eta metodologia hori bete-betean dator kanpo espazioetan aritzearekin", azaldu digu Jone Briñas irakasleak.

BEGIRADA ETA MAIZTASUNA

Altzoko eskolako irakasle Josebe Rezo-lak garbi du: begirada da kanpoan jarduteko gakoa, begirada aldatzea, zabaltzea. María Mayorgaren hitzetan, "begirada aldatuz gero, konturatuko gara zenbat baliabide ditugun aire zabalean irakaskuntzarako, makila bat ez delako bakarrik makila bat, erregela bat ere izan daiteke, adibidez. Kanpoan klasea ematea ez da testuliburua eskuetan dugula borobil bat eginez lurrian esertzea, natura bera da testuliburua, basoan daudelako proportzioak eta bolumenak, dagoelako historia, natur zientzietarako makina bat aukera, ikerketarako gaiak...". In Natura proiektuaren sortzailea da Mayorga, eta ekaina bukaeran Donostian antolatutako Naturan Hezi topaketetan hartuko du parte.

Maiztasunaren garrantzia ere jarri digu mahai gainean: kontua ez da noizean behin kanpora ateratzea edo berdeguneetan ordutxo bat egotea, "kontzeptua ez da natur gunea bisitatzea, natur gunea eskola bihurtzea baizik, eta horretarako orekatuagoa izan behar du kanpoan eta barruan pasatzen dugun denbora".

Dani Zuazagoitiak beste bi zutabe nabarmendu ditu: irakasleen formakuntza batetik, eta irakasleen arteko aliantzak bestetik, ikastetxe berean egon daitez-

keelako kanporako bidea hartzeko oso motibatuta dauden eta kontrako inertzian eroso dauden hezitzaileak. "Askok uste du naturarekin zuzenean lotuta dauden gaiak baino ezin direla landu kanpoan (landareen eta animalien zikloak eta gisakoak), baina ez da hala, beste arlo batzuk ere jorratu daitezke, landu nahi duguna espazio jakin horretara egokitzeko transposizio curricularra eginez". Matematikak, historia edo soziologia nola egokitu kanpo espazioetara? Hainbat adibide bildu ditugu aurrerago.

KANPOAN, ZER ETA NOLA?

Kanpo espazioak ez dira zertan egunero erabili, eta curriculum guztia ere ez dago zertan kanpoan landu. Hori bai, espazio horretan zer eta nola landu nahi dugun prestatzea inportantea da. Horra Dani Zuazagoitiaren oharra. Bere hitzetan, abiapuntua galdera eragileak edo galdera motorrak dira, ikasleak harrapatuko dituzten galderak egitea eta erantzunaren bila bidea egiteko erremintak ematea. Lurzoruaren gaia jarri digu adibide gisa. Ikasle askok lurraz duen jakintza oso mugatua dela dio, galdetuz gero hainbatek esango dizula lurzorua dela zapaltzen dugun hori. Bada, gaia lantzeko, atera gaitezen kalera, eremu berderen batera, eta bota dezagun gal-

dera: "Lur honetan zerbait landu al dezakegu?". Eta behin ikasleen jakin-mina piztuta, hasiko dira ikusten lurzorua bizirik dagoela, eraldatzen dela, ura edota materia organikoa metatzeko gaitasuna duela, izaki bizidunak dituela... eta indikatzaile horiekin ikasleek ondorioztatu beharko dute aztertu duten luraren kalitatea txarra, erdipurdikoa ala ona den, eta zer egin dezaketen kalitatea hobetzeko.

Zuazagoitiak gogoratu du zientzian irakasten direla kontzeptuak batetik, eta prozesu zientifikoak bestetik. Eta kanpo espazioetan prozesuak berdina edo antzekoak izan daitezkeen bitartean (behatu, konparatu, aurreikusi, hipotesia egin, datuak bildu, aztertu, ondorioak atera...), kontzeptuak egokitu egin behar ditugula dugun espazioaren arabera. Esaterako, ekosistema baldin bada jorratu nahi dugun kontzeptua, ezberdin jorratuko dugu aurrean duguna urmaela, basoa, baratzea edo eskola ondoko parkea baldin bada, espazio horien arabera ekosistema izango baita abiapuntua.

Egokitze gaitasun hori eta kanpora ateratzeak hezitzaileari eskatzen dion sormena azpimarratu du María Mayorgak, besteak beste naturan beti dagoelako aukera, "edo are gehiago, betebeharra", inprobisatzekoa. Klasea prestatu

behar da, bai, baina inprobisazioari beti tarte bat utzi behar zaiola iritzi dio, proiektu berriak sortzeko atea izan daitekeelako. “Irakaslearen formazioaren parte izan behar luke jardueraren batean ari direlarik zerbait agertu edo ikusi eta ikasleek arreta han jarri dutenean, bulkada horri eusten jakitea, une hori aprobetxatzea, jakin-minetik eta emoziotik irakasten jarraitzeko”.

Hain juxtu, irakasleak formaziora iristen direnean errezetak eskatzen dizkiotela azaldu digu, hau eta hura nola egin jakin nahi dutela. “Eta adibide praktikoak ematen ditugu, jakina, baina argi utziz adibideak inspirazio iturri direla, gero norberak egin behar duela bere bidea, dituen ingurune, ikasle-talde, baliabide eta helburu curricularrak aintzat hartuz”.

HISTORIA, KIMIKA, GEOGRAFIA, ARTEA... KANPOAN LANTZEN

Ez, barruan eta kanpoan ez da berdin irakasten, eta ikasi ere ezberdin ikasten da. Lurraren eguzkiarekiko errotazioa orri batean azaldu daitekeela dio Zuazagoitiak, baina horren ordez makila bat kanpoan zutik jarri eta hilero eguerdiko hamabietan neurtu dezakegu haren itzala, eta luzera apuntatzen joan, ikusteko ikasturte hasieratik luzatzen joango dela itzala eta abendutik aurrera laburtzen. “Prozesua mantsoagoa da, eboluzioa ikusteko denbora behar da, baina beste proiektu batzuekin batera tartekatuz de- zakegu”.

Sagarrondoak aitzakia izan daitezke kontsumo ekologikoaz eta gertuko kontsumoaz eztabaidatzeko, eta klimaz ari bagara, gure klimograma propioa eraiki dezakegu: plubiometroarekin ura neurtzen joan eta aldi berean tenperatura hartu.

Teknologia arloan ere badago nondik jo. Ikastetxe inguruko txoriei jaten emango dien ontzia eraikiko al dugu? Eta nola sortu ontzirik egokiena, egunero jana jarri ordez autorregulatzeko gai izango dena? Ondoren, gainera, jatontzia zintzilikatu eta zein hegazti mota hurbiltzen den behatu dezakegu, urtarorekin arabera –kamera txiki bat jarrita, esaterako–. Biologiara egin dugu salto.

Intsektuen hotelak ere arrakasta izan ohi du teknologian: mailua eta daratulia hartu eta ekin. “Eskuekin ez dakite lan egiten Haur eta Lehen Hezkuntzan ari-tuko diren irakasleek, nola da posible! –dio Zuazagoitiak– Sarri hori ere ematen dizute kanpo espazioek: eskuekin aritzeko beldurra galtzen dute ikasleek”.



Altzoko herri eskolako haurrak naturan klasean. SOS Larrialdi Klimatikoa proiektuaren bidez curriculumezko eduki asko kanpoan landu dituzte ikasturte honetan; datorren ikasturtean historia jorratuko dute, inguruko lekuak baliatuz.

Kimikan, konposta izanez gero materiaren eraldaketa prozesua jorratu daiteke: fase mesofilotik fase termofilorako trantsizioa ikus daiteke, tenperatura igo eta bakterioak nola hiltzen diren. “Plastiko zatiren bat beti agertu ohi da konpostan, eta hori ez da eraldatuko –gehitu

Estatistika lantzeko,
esaterako, ezkurak
hartu eta ikasleek
ezberdin landu ditzakete
(kotoian batzuek, lurrean
besteek; eguzkitan, kaxoi
barruan...) eta aldagaien
arabera lortutako
emaitzak alderatu

du Zuazagoitiak–. Irakasleak jakin behar du horrelako esperientzia txikiak baliatzen; ‘zergatik ez da eraldatu plastiko zati hau?’. Eztabaida piztuko da, eta hori da zientzia, hori da pentsamendu kritikoa sustatzea”.

Urmaela bera altxorra da bai kimika lantzeko, bai gai ugariri heltzeko ere.

Urmaelen Sareari eta Aranzadi Elkarteari esker gero eta gehiago dira ikastetxe inguruan putzua sortu eta baliatzen ari diren eskolak, habitat eta espezieak ikertzeko, uraren azterketa egiteko, protozoak eta mikroorganismoak bilatzeko edota laborategiko praktiketarako.

Matematiketan eredu ugari bildu ditugu. Baratz-mahaia hartu eta galdera eragilea egingo du irakasleak: ‘Mahai hau erabili behar dugu, zenbat lur erosi behar dugu?’. Eta horretarako ikasleek kalkulatu beharko dute lurra zein dentsitate duen, mahaia zein bolumena nola kalkulatu duten, kilogramotan saldu diguten lurra nola lotuko duten bolumenarekin... Angelu motak, bestalde, pila bat aurkituko ditugu naturan (angelu itsuak, kamutsak, konkaboak, konbexuak, lauak, osagarriak...). Zatiak ulertzeko ere baliagarria da hariak, makilak edota inguruan duguna erabiltzea, dezimalak edo portzentajeak azaltzeko. Berdin irudi geometrikoak lantzeko: erlauntzetako hexagonoak, Fibonnaciren segida erakusten duten eguzkiloreak, naturak eskaintzen dituen irudi simetrikoak... aurkituko ditugu. Eta estatistikari eusteko ere moduak badira, buruari eraginez gero; esaterako, ezkurak hartu eta ikasleek ezberdin landu ditzakete (kotoian batzuek, lurrean besteek; eguzkitan batzuek, kaxoi barruan besteek...) eta aldagaien arabera lortutako emaitzak alderatu ditzakete ondoren.

Orereta ikastolan arlo ugari natura-
ra eraman dituztela kontatu digu Jone
Briñasek: hala nola, kanpoko baliabi-
deekin estanzazioak egin dituzte Artea
ikasgaian, Musikan kanpora atera dira
entseatzera, inguruko mendi, leku eta
espezieak ezagutu dituzte Gizartean,
eta Kirol Heziketan txangoek eurek bide
eman dute motrizitatea naturan lantze-
ko. Zaldibiako Lardizabal eskolan, adi-
bidez, herri inguruan egiteko ibilaldien
bilduma osatu dute, ibilbide bakoitzean
zer ikusi daitekeen jasoz.

Eta ez dezagun ahaztu, curriculumeko
arlo ezberdinak proiektu beraren bueltan
lantzea ere bada helburua, “proiektuak
berak ematen baitio zentzua lantzen den
guztia”, dio Altzoko eskolako Josebe Re-
zolak. Eurek “SOS Larrialdi Klimatikoa”
proiektua landu dute ikasturte honetan,
eta kanpoan, besteak beste, eskulturak
eta mandalak egin dituzte harriekin, txo-
rientzako habiak eraiki dituzte aroztegia
tailerrean, eta aztertu dituzte zuhaitzen
bizi zikloa, basoko habitata, hegaztien
migrazioa, landareak eta polinizazioa,
erleen garrantzia –erlauntzan aritu dira
eta erlezain bat ere ekarri dute–, lehen
sektorea, klima ezberdinak... Adinaren
arabera, azalekoagoa edo sakonagoa izan
da landutakoa, “baina funtsa bera da; lan-
du nahi duzuna eta zailtasuna egokitzea
da gakoa”.

Hurrengo ikasturterako proiektua
prest dute: historia. Historia ere jorratu
baitaiteke kanpoan, noski, eta inguruko
kobazuloak, karobiak eta leku interes-
garriak ezagutuko dituzte, inguruetik
abiatuta egiteko bidaia iraganera.

Eduki eta curriculumetik harago, “ez
dezagun ahaztu jolasaren garrantzia –
nabarmendu digu Mayorgak–. Kanpoan
jolastea, hezkuntza orduetan nahiz ai-
sialdi garaian, jolastea ez delako soilik
umeen kontua, jolastu nerabeek ere egi-
ten dute, beste mota bateko jolasak izan
arren”.

BARRUTIK KANPORA, ETA KANPOTIK BARRURA

Ikasgelan eta ikasgelatik kanpo jorratu
daiteke gai bera, eta bata bestearen
osagarri eta segida izan behar du, kan-
poan landutakoa gelan eztabaidatu, ge-
lan barneratutako informazioa kanpoan
kontrastatu... Hain juxtu, barruko eta
kanpoko espazioen elkarrekintza izango
da Naturan Hezi topaketen gaia, EHUn
Uda Ikastaroen baitan. Topaketen zu-
zendari Maialen Sistiagak Danimarkako
Danish Nature Approach egitasmoaren



María Mayorgak klase baterako prestatuturikoa.

M. MAYORGA

zuzendaria aipatu digu, topaketetan
izango dena. Danimarkan baso-eskola
asko dago, baina horrez gain Haur Hez-
kuntzako ikastetxe guztiak ateratzen
dira egunero edo ia egunero kanpora –
herri txiki nahiz handi, baita Kopenhage
hiriburuan ere– eta egitasmoaren xedea
da ikustea basoan haurrek ikasten dute-
na nola islatzen den gero ikasgelan –au-
tonomia edo ulertzeko gaitasuna kasu–.

“Badaude ikasleak
aktiboki asko inplikatzeko
direnak kanpoan lanketa
praktikoan ari garenean,
baina fisikoki bakarrik ez,
kognitiboki ere inplikazioa
eskatzen du prozesuak,
liburuan datorrena eta
kanpo espazioan egin
duguna uztartuz”

Dani Zuazagoitia

Kanpoan ikasle batzuk bereziki moti-
batzen direla-eta, ikuspegi osoa izatearen
garrantzia azpimarratu du Dani Zuazagoi-
tiak: “Badaude ikasleak aktiboki asko in-
plikatzeko direnak kanpoan lanketa prakti-
koan ari garenean, baina fisikoki bakarrik
ez, kognitiboki ere inplikazioa eskatzen

du prozesuak, eta ikasgela barrura buel-
tatu eta eskatzen dugunean lurzorua
edo materia organikoaren inguruan in-
formazioa bilatzeko, ez badu halakorik
egiten, hankamotz geratuko da ikasketa
prozesua. Ideiak antolatzea eta eskema
mentalak aldatzea ere beharrezkoa da,
horretarako liburuan datorrena eta kanpo
espazioan fisikoki egin duguna uztartuz”.

Tira, lezio horiek guztiak eta gehia-
go barneratzen joateko eta kanpo espa-
zioetako jarduna handitzen eta hobetzen
joateko astia izango da, eskola-orduetan
ingurura irtetea pandemia sasoitik ha-
raindik mugimendua izango dela uste
baitu askok. “Ikusten ari gara segida due-
la joerak. Datorren ikasturterako ikaste-
txe berri ugari eman du izena baso-es-
kolaren formazioan, eta dagoeneko parte
hartzen ari diren ikastetxe batzuek ere
zabaldu egin dute eskaintza etapa be-
rrietara, ikasle eta adin gehiago hartuz”,
baiezatu du Maialen Sistiagak. ●

MARCOS
okindegia

**Benetako
antzinako ogia**

☎ 943 450 966
Ubarburu pasealekua, 113
Astigarraga (Gipuzkoa)

Ziburuko euskal liburu eta disko azoka

Gure ttipia handia dela baieztatzeko formula egokia

Baltsan elkarte ziburutarrak eta ARGIAk elkarlanean antolatu dugun Euskal Liburu eta Disko Azokaren bigarren edizioa ederki iragan da ekainaren 12an Ziburun. Irakurleak, idazleak zein argitaletxetako kideak gustura egon dira bertan eta antolatzaileek balorapen “biziki ona” egin dute, gerora ere errepikatzeko gogoia ezin gorderik. Plaza euskaratik eta euskaraz bizitzeko helburua bete dute, eta funtsean, Lapurdi kostaldean euskara hutsean hitzordu bat proposatzea bera da zerbait... handia.

 JENOFA BERHOKOIRIGOIN  DANI BLANCO

Jendea gosez hurbildu zen eta aseberik etxeratu. Liburu gose, euskara gose eta jende gose, eta hiruentzako hazkurri izaten asmatu du ederki Ziburuko Euskal Liburu eta Disko Azokak. Bigarren aldikoz, Baltsan elkarte ziburutarrak eta Argiak elkarlanean antolaturiko azoka iragan da ekainaren hamabigarren eguzkitsuan Lapurdi kostaldeko herrian. Lezo, Azpeitia, Izpura, Oiartzun, Zarautz, Azkarate, Baiona, Iruñea, Orio, Urruña, Hendaia, Ozta, Hernani, Astigarraga... Euskal Herriko xoko ezberdinetako jendea bertaratu da, Luzien Etxezaharreta Maiatz argitaletxeko idazleak dioen gisara, “Ziburu leku egokia delako bi aldetakoen bateratzea egiteko”.

Bertan egon ziren 23 argitaletxe, euskaraz idatzitako liburuen plazaratzen, ttipietan handienak eta ttipietan ttipienak, batak bertzeari ez ziola itzalik egiten. Gurea ttipia dela ohartarazten

digutelako handiek eta guhaurk ere ttipia garela errepikatzen dugulako behin eta berriz. Eta noski, bagarela ttipiak (handien ondoan), baina frantsesez eta espainolez idatzitako sorkuntzak alde batera utziz eta euskarazkoei eskainiz plaza osoa, begibistakoa gelditzen zaigu gure ttipia handia dela. Egiazpen hau egin zitekeen xumetasunez baita harrotasunez ere Ziburuko plazako menua deskubrituz.

Hauen artean genuen Pamiela argitaletxea, Peio Elzaburu kidea bertan zela “atxikimendu berezi” batekin bertaratu: “Argitaletxe nafarra gara, orduan zorionez ez bagaude ere Ipar Euskal Herriko egoeran, guk ere sasoi txarrak pasa ditugu eta pasatzen ditugu, beraz betidanik diegu Ipar Euskal Herriko gomita guztiei baietza erantzuten. Komunitatea garrantzitsua dela badakigu, minoritarioak izanik badakigu zein garrantzitsua

den elkargunea, oso ongi ulertzen dugu hori nafarrok”.

Elkargunea izan da bai, eta azokaren ttipitasunak permititu du idazle eta irakurleen arteko hurbiltasuna. Plazan muntaturiko karpa zuriaren pean jendea batu bada ere, ez da jende-meta-keta itogarririk izan, eta bazen denbora eta espazioa solasarentzat. Artetan berez doana oroitaraztearen beharra badugunez, ondokoa ohartarazten digu Etxezaharretak: “Inportantea da idazle batentzat irakurlearekin mintzatzea”. Bai horrela da, eta esaldiak aldrebes ere balio du: “Inportantea da irakurle batentzat idazlearekin mintzatzea”. Susa argitaletxearekin plazaraturiko *Lazunak azkazaletan* poema liburua aurkezten egon da Oihana Arana. Berari ere gusztatzen zaio hartu-eman hau: “Gusztatzen zait norberaren barnean horrenbeste denbora egon den zerbait ikustea gero





nola formaz aldatzen den, jendeak nola bizi duen. Aldatzen da, norberak idazten duena eta besteak irakurtzen duena sekulan ez da ber-bera, azkenean bakoitzak dagoen lekutik eta bizi duenetik irakurtzen duelako liburu bakoitza eta niri hor sortzen diren konfrontazioak interesgarriak iruditzen zaizkit beti”.

Trukaketa hau beharrezkoa zai-gula sendi dugu, COVID-19 urte terdi baktartzailetik poliki-poliki ateratzen garen honetan. Argitaletxe ezberdinekin solastatzerakoan, testuinguru honen eraginaz ere aritu gara eta diotenez, orokorrean ez du kolpe bortitzik eragin liburgintzan. “Liburuek segitu dute beren bidea egiten, idazleak idazten, irakurleak irakurtzen... mugimendu hori ez du moztu egoerak, galdu duguna da idazle-irakurle trukaketa: elkar agurtzea, aurrez aurre zoriontzea edota elkartzea eta liburua komentatzea”, Susako Itziar Ugarteren hitzetan. Galdutako hau berreskuratze-ko hitzordutzat zeukan Ziburuko Azoka. Iritzi berekoa da Pamielako Elzaburu ere: “Emozio handia bada, nabaritzen da irakurtzeko ohitura on hori ez dela galdu, are gehiago jendea gose da”.

Goizean zeuzkaten liburu aurkezpen eta Zirriborroka bertso-marrakzi saioaz geroztik orduak pasa zirela, astirian oraindik hor zeuden Odei Barroso eta Maddi Ane Txoperena terrazan, gustura, kontu-kontari. “Badu urte bat kasik ez dudala kantatu plaza batean... funtzio anitz bete ditu gaurkoak, tartean, jendegoseari erantzun izana, bizi soziala eskaini digu; eta bizi artistikoan ere eragin dit, plazan bertsoan aritzeko gogoa piztu dit berriz, jendearekin egote hori eskertu dut”. Bide beretik doa Txoperena ere: “Ohol-tza eta areto askoz formalagoetan aritu naiz ni, baina gaurkoak eskaini duen jendearekilako hurbiltasuna eskertu dut. Topaketa eguna izan da, kausitu dut jende pila bat aspaldi ikusia ez nuena”.

Bi hauek ere eskertu dute euskal liburu eta diskoei bideratu izana azoka: “Diskriminazio positibo hau positiboa da”; “zorrozki mugatu izana ongi da, zeren bestela jaten gaitu besteak”.

Zazpi idazleren azken liburuei buruzko azalpenak entzuteko plaza ere izan zen larunbatekoa, Euskal Irratieta-ko Maia Muruaga kazetariak gidaturiko aurkezpenen bidez: Maddi Ane Txope-

“*Poztekoa da ematea ikusgarritasuna eta zentralitatea euskarazko liburugintzari*”

Itziar Ugarte



renaren *Ene baitan bizi da*, Asiskoren *Sugarren mende*, Jon Alonsoren *Naparra, kasu irekia*, Mikel Antza eta Adur Larrearen *Burgosko auzia: iraultza eta bizi!*, Jakoba Errekondoren *Etxeko landareak*, Oihana Aranaren *Lazunak azkazaletan* eta Itxaro Bordaren *Susmaezinak*. Orotara, aurtengo 60 bat berritasun mahai-gaineratu zituzten argitaletxeek, ondoan aurreko urteetako beste ehunka zituzte-lira irakurleen begibistan jarrita.

ZENTRALITATEA EUSKARAZKO LIBURUGINTZARI

“Poztekoa da ematea ikusgarritasuna eta zentralitatea euskarazko liburugintzari” dio Susako Ugartek. Antolatzaileen hautua izan da soilik euskarazko liburugintzari eskaintzea lekua eta euskara hutsean bideratzea komunikazioa. Hautu ausarta eta politikoa, diglosia giro bortitzean, euskara sartzekotan elebitasunaren hautua egin ohi duen Ipar Euskal Herriarentzat. Ausarta, politikoa eta euskaraz bizi nahi dugunok eskerturikoa. Ziburutar bat baino gehiago zegoen poz-pozik haien plaza euskaraz bizi ikustez.

Balorapenaren ordua ez bada ere oraindik etorria, argitaletxeekin hitz eginik, bilan “biziki baikorra” egiten zuen Ladix Arrosagarai Baltsaneko ki-deak egun bukaeran: “Gure helburua da liburugintza laguntzea, eta pozik gaude,



irakurle gehiago etorri delako bigarren edizio honetara eta argialetxeek ere gehiago saldu dutelako”.

“[Ipar Euskal Herrian] liburu denda guti da, eta guti horietan euskarazko produktua xuhur edo ez dira eskuragarri. Eta ez badira ikusgarri, ez dira erosten. Beraz, guk ikusgarritasuna eta eskuragarritasuna eman nahi dizkiogu euskarazko ekoizpenari”, zioen azoka aurkezteko pentsaurrekoan Adur Larrea Baltsaneko kide eta komikigileak.

“Plaza osoa euskaraz mintzatu da egun osoan”, dio Arrosagaraik, alai. Euskaldunak %12 inguru dituen Zibururen zat sekulako garaipena. 310.000 biztanle dituen Ipar Euskal Herrian, 51.000 euskal hiztun daude, inolako aitortzarik gabe, korrontearen kontra etengabe, kontzientziatik eta bihotzetik, egin ahala euskaraz bizi direnak.

ESKOLATIK PLAZARA

Hauen artean, haurrak ditugu eta adin ttipikoei begiratzu gero hobeak dira datuak: hiru umetatik bik euskaraz jasotzen dute hezkuntza –osoki edo elebidun sailean–. Baina arazoa da eskolako lau pareten artean entzundako hizkuntza dutela anitzek, etxean zein plazan frantsesa dutela aditu eta erabili beharreko hizkuntza.

Egoera linguistiko honetaz kezkatutik, egun bakar batentzat bada ere, azokaren

bidez irauli nahi izan dute umeen errealitate hau: “Euskara haien herriko plazan entzun dezatela, haien gurasoekin batera, plazerrez eta presiorik gabe”, ihardesten digu Maddi Zubeldia antolatzaile eta idazleak, haurrei begira duten helburuaz galdeturik. Hori horrela, hilabete batzuk lehenago eskolekin harremanetan jarri eta *Iturri zaharreko ipuina* osatu dute Bernadette Irazoki ipuinlariarekin batera eta Mixel Klaudio mandolina jotzailearen, Txomin Aritzaga gitarristaren eta Xano Urtxegi eskusoinu jotzailearen laguntzarekin.

1676an eraikitako herriko iturri zaharrean hitzordua jarri eta ipuinaren artetik, eskola bakoitzak kantu bat plazaratu du, guztiek uraren elementua zutela aipagai. “Leku honek badu magia. Iturri zaharretik edan dugu, iturriaren funtzioa deskubritu dute, kontu-kontari aritzearena, elkartzearena eta honen garrantzia ikusi dute. Gure iturria da, agortua da... baina gaur ez zen agortua”, dio Zubeldiak, bizitutako momentuaz oraindik xarmaturik. Ez zaie zuzenean erran iturria izan zitekeela euskararen eta euskarazko topagunearen metafora, baina seguru esplikazio formalik eman gabe egiten zutela lotura inguruan zuten giroarekin. Iturria utzirik, denek azokan bukatu zuten, haur zein gurasok: “Azokara etorriko ez zen jende

bat etorri da *Iturri zaharreko ipuina*-ri esker, eta erakutsi zaie eskolatik kanpo ere gozatu dezaketela euskaraz”, Arrosagarairaren hitzetan. Zubeldiak urtero errepikatu nahi duen hitzordua du iturri zaharrekoa.

Iturriko hitzordua gisara, plazako hitzordua errepikatze gogoia ere sendi da antolatzaileen partetik. Azokaren tamaina ttipiak ahalbideturiko giro herrikoia eta familiarrean jendea gustura zela nabarmen gelditurik, famak ekar lezakeen handitzeko beharra bururatu zaio kazetariari eta horretaz galdetu dio Arrosagarairi. Horra erantzuna –modu pertsonalean emana–: “Neurri pare bat gorago joan gaitezke baina ez asko... bestela, behar genuke gune handiago batetara mugitu; baina kasu horretan plaza utziko genuke, eta gure helburua da justuki euskarak plaza hartzea. Beraz, handitu bai, baina plazak ematen dizkigun mugen barnean”. Urtean egun bat bada ere, ukanen dugu beraz berriz ere Ziburuko plaza euskaraz bizitzeko suertea.

Azoka Aguxtin Alkhat eta Julien Labaten kontzertuarekin bukatu zen. Azokak ateak hetsi zituen eta anitz ziren plazako Maitenia eta Bittor tabernen terrazetan eguna luzatu zutenak, urte osoan zehar euskaldunentzat gune estimatuak diren bi ostatu euskaldunetan. ●

“ ”

Liburu hau ez da errelatoaren batailarako munizioa

Mikel Antza

Martxoan argitaratu zuen *Arroz Urez* (Txalaparta) lana eskuetan hartuta, Iruñeko Katakraken egin dugu hitzordua elkarriketak sobera maite ez dituen Mikel Antzarekin (Donostia, 1961). 1970eko ETaren zuzendaritzaren aurkako Burgosko Auziko eztanda bere biografia militantearekin harilkatuz, Euskal Herriko azken 50 urteetako kontakizun bat egin du: berea, “pertsonala eta introspektiboa”. Hainbatetan “hitz egin ezin diren” gai eta ideiekin topo egin badugu ere, luze hitz egin digu bere azken lanaz, literaturaz, politikaz, memoriaz eta errelatoaz, (gizonok eraikitako) historiaz. Gure webgunean elkarriketa honen bertsio luzea.

 ZIGOR OLABARRIA ETA LANDER ARBELAITZ  DANI BLANCO

Arroz Urez izeneko lana argitaratu duzu. Nola definituko zenuke?

Saiakera literario gisa atera da. Badu autobiografiatik asko, badu historiatik, ikerketatik, kazetaritzatik, baita literaturarik ere. Idazten ari nintzela konturatzeko nintzen zerbait berezia zela, bai egitura aldetik, baita mami aldetik ere. Oso organikoa izan da idazketa, oso liburuaren gainean egina. Beste literatur lanetan distantzia gehiagorekin aritu naiz, baita *feedback* gehiagorekin ere, banekien zerk funtzionatu zuen literarioki eta eroso ibiltzen nintzen. Oraingoan liburu eskuetan izan eta irakurri nuenean konturatu nintzen baietz, funtzionatzen zuela.

Izenburuak erreferentzia egiten dio espetxetik mezuak klandestinoki ateratzeko metodo bati, arroza

egosteko ura baliatuz liburuetako lerro artean gauzak idazteko. Liburuan gauza asko doa lerro artean?

Liburuaren erdialdean agertu zitzaidan izenburua eta nik uste ongi adierazten duela barnean zer dagoen. Idazketa prozesuan asko dago kenduta, editoreari esker. Tonu mikatz, garratz, aldarrikatzaile batetik idatzi nuena rebajatu dago, ez politikotik baizik eta pertsonaletik. Esaldi pare batean oraindik ere gehixeago rebajatu nuke. Inprentara bidali aurreko azken frogetan, “esaldi honek ez du ezer onik ekarriko eta norbait minduko da” gisakoak pentsatuz kentzen ibili nintzen. Ez nuen hori sortu nahi. Halere, ez dut gorde esan nahi nuenik, hau da idatzi nahi nuen liburu, nahi nuen forman. Eta bai, arroz urez, lerro artean, mezu batzuk ere badaude irakurle desberdinentzat.

Burgosko Auzia da liburu ardatz nagusia, baina hau ez da historia liburu bat.

Adur Larrea eta bioi *Gara*-k enkargatu zizkion Burgosko Auziari buruzko komikian du jatorria. Amaierako eranskina idazten ari nintzela konturatu nintzen nire biografiak bazuela harremana Burgosko Auziarekin, horko gertaera eta protagonis- tekin. Konturatu nintzen nire biografian bazegoela ETaren hasiera eta ETaren amaiera, nahiz eta hasiera eta amaiera ezberdinak egon daitezkeen. Oso liburu pertsonala eta introspektiboa da.

Oso pertsonala dela diozu eta distantzia gerora hartu duzula. Aldi berean, hirugarren pertsonan hitz egiten duzu nagusiki Mikelez.

Gauza batzuk halabeharrez edo kasualitatez gertatzen ari baitzitzaizkidan



idazten ari nintzen neurrian. Unai Dorransoro ezagutzea, Arantxa Arrutirekin hitzordua egitea, Julen Kaltzadaren kapituluan gertatzen diren gauzak... Eta hirugarren pertsona idazteak bi arrazoi zituen. Bata estilistikoa: lehen pertsona idatzita ez zuen funtzionatzen. Nik ezin nituen idatzi lehen pertsona, "Ni jaio nintzen" eta halakoak. Aldiz, hirugarren pertsona jartzean, nire buruaz beste bat balitz bezala hitz egitean, funtzionatzen zidan. Torturapean daudenak –kontatzen dute torturatuak izan direnek– edo espetxean isolamenduan nengoen, ni neu adibidez, halako jarrera bat neukan. Nire burua zer egoeratan zegoen ikusten nuen eta distantzia horrek baimentzen zidan nire buruaz hitz egitea. Liburuan hirugarren eta lehen pertsona daude, eta batetik bestera Euskal Herrira itzultzen naizen unea. Hor hausnarketa txiki bat egiten dut: ni ez nintzen kartzelatik bueltatu, ni bueltatu egin nintzen, kartzelatik ere bai.

Dezente laburtu duzu liburua hasierako bertsiotik. Garazi Arrula editorearen gomendio literarioez gain, segurtasun kontuak ere izan dira?

Ez. Metaliteratura izugarri zegoen. Kontakizun batzuk oso laburtuak atera dira, eta nik uste horrela efikazagoak direla. Zerbait idazten hasten zarenean, guztia kontatzen duzu, eta gero, bigarren aldiz kontatzen duzunean askoz efektiboagoa zara. Zentzu horretan laburtu da.

Komentatu zidaten ea idatzia abokatu bati emango ote nion argitaratu aurretik, eta nik argi nuen: ez. Neure burua mugatu baldin badut, batetik, zer egoera politiko dagoen eta horrek zer ondorio izan ditzakeen ikusten dudalako egin dut; eta bestetik, batez ere, liburu hori ez delako lekua hainbat gauzari buruz hitz egiteko. Oso liburu pertsonala da. Nik pertsonalki askoz gauza gehiago esan nitzake gure herrian gertatu edo gertatzen diren gaiak buruz, baina ni nor naiz hori esateko? Nik ezin dut hitz egin talde baten izenean, kolektibo baten izenean; niretik bai, baina niretik ere, puntu bateraino, horrek eraginak dituelako, ez juridiko edo penalak, baizik eta pertsonalak jendearekiko harremanetan, minetan eta bizipenetan. Liburu bat ez zait iruditzen horretarako lekua.

"Gure herrian gertatu denaz edo gertatzen ari denaz hitz egiteko, nor naiz ni?", esan berri duzu. Beno,

edonor izan daiteke inor, baina zu gainera Mikel Antza zara eta egon zaren tokietan egon zara. Jende askok pentsa dezake, "noski bazarela nor horretaz hitz egiteko", baina elkarrizketa eskatzean aurreratu genizunean horretaz ere hitz egin nahi genuela, erantzun zenigun ETaz eta egoera politikoaz ez zenuela hitz egin nahi. Zergatik?

Ezin da hitz egin Euskal Herrian, hastera, ez garelako herri libre bat. Libre bagina beste modu batean planteatu beharko genituzke gure herrian gatazka armatu honek ekarri dituen ondorioak eta ETA izan denari buruzko kontuak. Baina planteatu egin behar lirateke, ez gaur egun bezala utzi. Izan ere, badirudi igerileku bat dagoela ez dakit zerez betea, eta denok inguruan bueltaka gabiltzala, baina batez ere bat bota nahi dela berriro igerilekura. Hor daude presoak, hor biktimak, orain lege bat atera da, gero beste bat, gure herria zatituta dago... baina gaiari ez zaio heltzen.

“ ”

Bizitza guztian zehar borroka egiten dutenak oso gutxi dira, eta horiekin ezin da asko egin

Euskal gatazka eta zure biografiak oso presente daude zure aurreko lanetan ere: *Atzerri, Ospitalekoak, Ametsak ere zain...* Horri buruz idazteko beharra duzu?

Trilogia baten amaiera da hau: *Pessoak atera zuen kartzelatik Sarrionandia antzerkia, Burgosko Auzia: iraultza eta bizi* komikia eta *Arroz Urez*. Nik idazle gisa hiru aldi banatzen ditut. Lehena, 1985eko uztailaren 7a baino lehenagokoa; bigarrena kartzelan berriro ere idazten hasten naizenekoa; eta hirugarrena, ondoren idatzirikoa. Tartean dago *Odolaren Usaina*, errefuxiatu nintzela idatzitako ipuin-liburua. Ez nuke nahi, liburu hau argitaratu eta gero, "gatazka literaturako" aditu izan; guztiz kontrakoa.

Ziklo baten itxiera izan daiteke, beraz, liburu hau?

Ikusten ditut gaiak gatazkarekin zerikusia duten obra idatziak egin ahal izateko, beharrezko ikusten ditut, baina nik ez nuke horretan sartu nahi. Baina, tentaldiak sortzen zaizkit, ikusten dudalako hutsunea eta zertaz hitz egin handia, eta beharra dagoelako.

Miguel Castells abokatuari abenduan *Gara* egunkarirako egin zenion elkarrizketaren izenburua hau zen: "Ez dago askatasunik ETari buruz hitz egiteko". Zuk egin duzu modua gaiak hitz egiteko. Kezkatzen zaitu errelatoaren gaiak?

Liburu hau ez da errelatoaren batailarako munizioa. Gatazka armatu batetik ateratzen ari gara –beno, parte batek utzi du nahiz eta besteak jarraitzen duen–, eta hori bukatu ahala orain ematen du sartu behar garela errelatoaren batailan, badirudi horretara garamatzatela. Ni pertsonalki horren aurka nago erabat. Euskal Herrian, gizartean ez dut ikusten errelato bati beste bat kontra-jartzeko beharra: orain *Patria* atera da eta guk *Anti-Patria* egingo dugu; orain atera da telesail bat eta guk komikitxo bat egingo dugu... Guretik eta guretzat idazteko beharra ikusten dut, nik hortik egin dut. Barne hausnarketa egin behar dugu, bai, hitz egin behar dugu, baina ez besteek esaten dutenaren arabera. Idaztean, oso ezberdina izango da jarrera, gezurrean eta manipulazioan oinarritutako kaka zalantzan jartzeko istorio bat eraiki behar badut, eta nik "egia" atera behar badut, ez guri interesatzen zaigulako, baizik eta horri aurre egiteko. Horrek kateatu egiten gaitu berriro ere askatu nahi dugun horretatik. Haien zatidazten jarri behar gara, gatzelaniaz egin behar dugu beraz eta abar... ez dago errelatoaren baitailarik, edo nik behintzat ez dut batere interesik horretan.

Guretik idazteko beharra azpimarratzen duzu, baina "gu" hori ere oso subjektiboa da. Ez dakit irakurri duzun Joxe Iriarte *Bikila-k* atera duen liburua, edo Karlos Gorrindorena, Emilio Lopez Adan *Beltza-rena...* Horiek gu zabal horren barnean kokatzen dituzu?

Ez ditut irakurri. Jarraitu dut, badakit atera direla, baina ez dakit zer ikuspegitatik eginak dauden.

Batzuk oso kritikoak dira ETarekin, Gorrindorena adibidez. Joseba Sarrionandiak idatzi zuen liburu

horren sarreran, errelato hori ere kabitu behar dela "gure" kontakizunean.

Itzultzen gara Miguel Castellsen titularrera. Arazoa da, berrero ere, batzuk arroz urez, lerro artean eta ikusezin idaztera behartuta gaudela. Espainiako eta Frantziako jurisdikzioek erabakitzen dutelako zein den diskurtso jasagarria eta zein ez. Bakoitzak bere bizipenak ditu: Beltzak bereak ditu, Bikilak bereak, Gorriak bereak, baina *fair play* pixka batekin arituz gero, guztiok jabetu beharko genuke Castellsek dioenaz. Badagoela komunitate bat, Euskal Herriaren askatasunaren alde borroka egin duen jendeak osatua, eta hitza debekatua dutela. Lehen ekintza bat egiteak ondorio juridiko eta penalak zituen; gaur egun hitzarekin ibili behar da kontu handiz. Horrek niri ezerosotasuna sortzen dit. Hau da, zuk esan dezakezu nahi duzuna, baina nik ezin dut esan "hori ez da horrela" edo "nik hau horrela ikusten dut". Zergatik? Ez gaudelako askatasunean.

Liburuan balorazio esplizitu gutxi egiten da ETaren ibilbideaz, iruzkin autokritikorik ere gutxi... Hala ere, Xanpier Etxegoien zuberotarraren kapituluak arreta deitu digu: ETari lagundu zion eta une batean ETA

egiten ari zenaz epelak bota zizkizula jaso duzu liburuan.

ETako militanteek sortu den ikuspegi monolitiko eta akritikoa desmitifikatzeko jaso dut hori. Xanpier Etxegoien jartzen dut hor, batetik, erakusteko erakundeko militante edo erakundean aritu den jendearen aniztasuna. Militante edo herritar gisa –Xanpierrekin ez zuen bere burua militante gisa ikusten, herritar gisa baizik– ikuspegi hiper kritikoa izan zezakeen momentu konkretu batean erakunde batek egiten zuenaz. Ni ETako militante izan naiz eta ikusi dudanagatik hori oso-oso arrunta da. Ekintza bakoitzarekin, gertaera bakoitzarekin... baina hori nola kanporatzen da eragiten den minarekin, norberak sentitzen duen minarekin eta dagoen gerra baten erdian? Galdera hori da.

Zer irakurtzen duzu?

Amaitzen ari naiz *Ene herri txikia*, Gaël Faye-rena, eta ondoren Irati Elorrietaren *Neguko argiak* irakurtzeko asmoa daukat, horren aurretik Oier Gillanen *VHS* irakurri nuen, aurretik Xabier Montoiaren *Taxiak ez dira inoiz geratzen...*

Interes berezia dut andreak idatzitako literaturarekin: Katixa Agirreraren *Amek ez dute*, Miren Amurizaren *Basa*, Uxue Alberdiren *Dendaostekoak*, Alaine Agi-

rreren *Kamisoi zuri zetazkoa*, Karmele Jaioaren *Aitaren Etxea*, Kattalin Minerren *Moyo...* Interes berezia sortu dit Mari Luz Estebanen *Andrezaharren manifestuak*. Hausnarketa askotara eramaten nau.

Kontatu duzu zuen aita ETako lehen militanteetako bat izan zela. Zuen amak, zure gurditxoaren lastairaren azpian ETaren propaganda eramaten zuen ezkutatuta. Frankismo garai haietan, zer giro zenuten etxean?

Ez genuen politikaz hitz egiten. Guk bagenekien aita kartzelan zegoela, baina ona zela, ez zela gaiztoa eta abar. Liburuan kontatzen ditudan gauza horiek guztiak behin ETan sartu eta gero jakin ditut, bisita batean nik galdetutako gauzak dira. Orgarena niretzat garrantzitsua da, kapitulu batean militante bezala andreen parte-hartzeari buruz gogoetatzeko.

Ikusten da Burgosko Auziak arrastoa utzi zuela zuegan.

Komikiari buruz dokumentatzean, ohartu nintzen benetan Burgosko Auzia zer izan zen ikuspegi historiko batetik begiratuta. ETA 1958an sortu zen, baina 1970 arte, nolabait esateko, ez zen ezer. Eta orduan, ez zen bakarrik zerbait bihurtu, baizik eta Euskal Herria mundu mailan geopolitikoki kokatu zuen.

Burgosko Auzitik hamar urte pasa ziren lehen hauteskundeetara. Nik 18-19 urte nituen, Burgosko Auzia gertatu zenean bederatzi. Leherketa horren, *Big Bang* horren uhin espantsiboan geunden, baina hala ere, ez genuen ulertzen mundu hori nola sortu zen. Orduko politikariek bazekiten nondik zetozen eta zergatik, baina gazteok ez genekien. Nire kezka da, gaur egun ea zenbateraino daiten gazteek nondik gatozen.

Arjelgo prozesua pasa ostean, garai hartan 10 urte zituzten militante gazteekin hitz egiten genuen eta ez zekiten zer zen. Azalpenak ematen zituen borroka bat bazegoen ordea. Transmisioak arduratzen nau: non gauden, zergatik gauden, zer gertatu den, ez balioesteko edo txalotzeko egina, baizik eta jakiteko zer den gertatu dena. Hemen berrero itzultzen gara lehenagoko kontura: ezin denez hitz egin, ezin denez horretaz argi transmititu, nire kezka da ea ez ote garen isiltzen ari.

Epika baten jaiotzaren kronika da Burgosko epaiketarena. Epika elementu garrantzitsua iruditzen zaizu politikarako?



Bertold Brechtek badu asko erabil-tzen den poema bat. "Gizonak", esaten du berak baina beno: "Badira pertsonak borroka egiten dutenak egun batez, eta horiek onak dira. Badira pertsonak borroka egiten dutenak urtebetez, eta horiek oso onak dira. Eta badira pertsonak bizitza guztian zehar egiten dutenak borroka, eta horiek dira ezinbestekoak". Horren aurka nago guztiz. Nik uste dut ezinbestekoak egun batez borroka egiten duten horiek guztiak direla. Egundatez batek, bestean beste batek, eta hurrengoan beste batek... Bestela ezin da azaldu, Castellsek dioen bezala, nola heldu garen hona.

Bizitza guztian zehar borroka egiten dutenak oso gutxi dira, eta horiekin ezin da asko egin. Epikaren eremuan uste dut gehiago jo behar dugula horra. Liburuan esaten dudana bezala, zein da garrantzitsuagoa, bileran dagoen militantea, edo bazkaria prestatu duena, edo etxea utzi duena... Horri eman behar zaio buelta.

Errazagoa litzateke autokritikoagoa izatea, gorazarre egin nahi zaionari gorazarre egiteko aukera askea balitz?

Nik ez dut gorazarre egiteko inongo beharrik, ez gogorik. Nire ikuspegitik errealitateak daude. Helburu batzuk zitu-tuen talde bat bazen, jende multzo bat, herri bat. Eta aurrean zeuden, beste helburu batzuk zituzten beste jende multzo batzuk, estatu batzuk. Batzuek nahi zu-ten gauza bat eta besteek beste bat. Nik ez dut ezeren gorazarre egin behar. Ezin dudana da errealitate hori nolakoa den gehiegi azpimarratu, zeren bestela, norbaitek esango du ari naizela gorazarre egiten, eta ez dut beharrik.

Autokritikarena batera doa. Berririo esango dut, baldintzak baldin baleude hitz egiteko, autokritika horren helburua zein den argituko balitz... beste kontu bat litzateke. Torturatu ninduzula autokritikatu behar zara? Hori baino, nik nahi dut jakin zergatik torturatu ninduzun. Nik badakit zergatik borroka-tu dudana, zergatik egin zituen erakun-de horrek egin zituenak, ongi, gaizki... Torturatzaileak azaldu beharko liguke zergatik borrokatu duen, hori da azaldu beharko ligukena. Zergatik.

Liburuan Martueneko ihesaldiaz ere mintzo zara, xehetasun batzuk lehen aldiz ematen duzu. Zer sentitzen da norbaiti espetxetik ihes egiten laguntzean.

Edonork imajina dezake: zoriona. Liburuan jartzen dut, norbaitek espetxetik ihes egiten duenean denok egiten dugu ihes. Saiatu naiz laburbiltzen ihesaldi baten inguruan egon daitezkeen senti-menduak, barruan edo kanpoan daude-nentzat, parte hartu duenarentzat. Ihes egin duen bati galdetu behar zaio: "Zer sentitu zenuen ihes egin zenuenean?". Nire ustez, berriro jaiotzea bezala izan-go da. Jaiotzea. Eta beraz, laguntzea da emagina izatea bezala. Oso ekintza fe-meninoa da nire ikuspegitik.

“ ”

Guretik eta guretzat idazteko beharra ikusten dut. Barne hausnarketa egin behar dugu, bai, hitz egin behar dugu, baina ez besteek esaten dutenaren arabera

Eta zer sentitzen da 35 urte ondoren emagin lanetan lagundu zenuen pertsonarekin elkartzen zarenean?

Behin Usubilen kasualitatez egin nuen topo [Iñaki Pikabea] Pitirekin, urte asko pasa eta gero... poza. Eta Josebarekin... arraroa. Azken batean, argazkitan eñlar ikusi dugu nola aldatu garen. Hala ere, oso intimoa da gai hau.

Ihesaldiaren xehetasun gehiago ez duzu kontatu nahi...

ETAk aldarrikatu zuen ekintza bat da, beste batzuk bezala. Nire izena ezaguna da ezinbestekoa zelako ezagutzera ematea, eta beste kide batena, atxilotu zute-lako. Baina ekintza kolektiboa da, ekin-tzek ez dute izenik, ez bata, ez besteak. Horregatik ez dut hitz egin nahi ekintza honi buruz. "Ze ekintza polita", pentsa dezake norbaitek. Nik beti gogoraraz-ten dut handik bi egunera Ogasuneko delegaritzan bi guardia zibilen kontrako ekintza bat izan zela. Hori ere ekintza kolektiboa izan zen. Gatazka da dena, gero pozten gara gauza batzuekin, baina gatazka dena da eta uste dut inportantea dela hori.

Ihesaldiez mintzo, ez da Martutenekoa bezain ezaguna, baina Burgosko Auzia guztiz aldatzear egon zen ETA VI.a Burgosko espetxe azpian tunela eginez presoak askatzear izan zituen Botila operazioa, liburuan jasotzen duzu. Zer ondorio izan zitzakeen?

Historiak baditu guztiz alda dezaketena bidegurutzak. Oso desberdina izango zen kasete batean Mario Onaindiaren ahotsa entzun beharrean, espetxetik ihes egin eta Parisen aurpegia emanez prentsaurreko batean ikustea 16 auzi-peratuak. Historia guztiz izango zen bes-telakoa ihesaldi hori aurrera atera izan balitz. Azterketa politikoa eginez, hori zen ekimenetan erabakigarriena.

Torturaren gaia asko ateratzen da liburuan. Protagonista asko torturatuak izan ziren, zu zeu ETAn hasi zinenean, atxilotuen kantadak [torturapean poliziari esandakoaren xehetasunak] edo tortura testigantzak ordenagailuz pikatzen aritu zinen... Nola eragiten dio horrek pertsona bati?

Ni sartu nintzenean, orduantxe hasi zen erakundea informatizatzen eta kideek emandako materiala hartu eta trans-kribatzeari ekin nion. Distantzia asko-ekin irakurtzen nituen. Hor hain letra txikiarekin jartzen duena ulertzen saia-tu behar zara. Oso ondo eginda egoten ziren, kolore desberdinetako boligrafoekin atalak erantzunez, horrela egiten zelako. Torturapetik pasa berri zen pre-soa hartzen zuen kartzelako arduradun batek, gertatu zena idazten laguntzen zion, egin ziotena, eta bazen *arroz urez* ez zen bide bat helarazteko iritsi behar zuen lekura.

Niri tokatu zitzaidan hori egitea oso kontziente izan gabe, nahiz eta orain fi-gura literario bat bezala egiten dudana. Nik poesia idatzi nahi nuen eta beste hori idazten ari nintzen. Askok eta asko trans-kribatu nituen, eta gero ere testigantza asko irakurri dut.

Tortura izan da Espainiako eta Fran-tziako estatuek Euskal Herriaren aska-tasunaren alde borroka egiten dutenen aurka hasieratik bukaera arte erabili du-ten metodo nagusia. Hipotesi bezala jar liteke: arma hori erabili ez balute, non geundeke herri bezala? Tortura arma isila eta isildua da; lehegailu bat ikusi egiten da. Zure arma nagusia isilpean mantentzen bada, eta gainera, konpli-zitatea badago hori horrela izan dadin,



adibidez, bistaratzea lortzen denean sinesgarritasunik ez emateko... Estraburgora iristen denean ere, Espainiako Estatua zigortzen dute, baina zigortzen dute ez duelako salaketa ikertu. Tortura *continuum* bat izan da nire bizitzan, horregatik ateratzen da hainbeste liburuan.

Burgosko Auziko froga nagusiak tortura bidez erauzitako adierazpenak izaki, erbestean zen Eusko Jaurlaritzak adierazi zuen onartezina zela edozein ondorio eta Leizaola lehendakariak lehenengo greba egunerako deitu zituen herritarrek. Nola aldatzen diren gauzak...

Nahiago dut nork bere ondorioak ateratzea.

Liburuan, gehienak gizonak ageri dira.

Bai, liburuan adierazten saiatu naizen gauza bat da, obsesionatzen nauena. Badago ETA talde armatu bezala militarismotik kritikatzan duen ildo oso kritiko

bat. Ez dut kentzen bestelako kolektibo humanoetan bezala jazarpen sexuala eta genero azpiratzea egon ez direnik ETAn, baina mereziko luke bestelako irakurketa bat ere egiteak. Baina batzuentzat hori apologia edo dena delakoa egitea litzateke, eta berriz ere, hitz egin ezin diren gauzen eremuan sartzen gara.

Eta aipatu ditugun memoria eta errelatoaren inguruko azkenaldiko lanen egileak ere (Gorrindo, *Beltza*, *Bikila*, zu zeu...), denak gizonak.

Plaga bat da, horrela da. Horregatik ere saiatu naiz oso niretik idazten liburua, ez ahots kolektibo bat irudikatu nahian.

Liburuan Marixol Iparragirreraren historia latza ere kontatzen duzu, nola hil zuten orduan bere bikotea zena, nola torturatu zuten bere familia osoa... Zure bizitzan ere garrantzia handia duen pertsona da. Kostatu zaizu idaztea?


Marixol Iparragirre ETAn desagertze agiria irakurri zuten pertsonetako bat da. Liburuari hasiera gurasoeekin ematen

diot eta amaiera, Marixolekin. Harreman pertsonal bat dudanez, iruditzen zitzaidan bazegoela hor liburuari forma ematen zion zerbait. Ez zait kostatu idaztea.

"Gatazka berriro ere errepika ez dadin helburu jarrita, beharrezkoa da mundu guztiak libreki hitz egiteko aukera izan, eta biktima guztiak aitortuak eta erreparatuak izango diren prozesu bat irekitzea". Horixe adierazi zuen orain hilabete batzuk Marixol Iparragirrek Espainiako Auzitegi Nazionalan...

Ea norbaitek heltzen dion horri, bestela arriskua dago. Mota bateko eta besteko zanpaketek jarraitzen badute, ez bazaio jartzen soluzio bat, gazteek erantzun egingo dute. Ez da mehatxu bat, konstatazio bat da, historia horrelakoa da. Aukera daukagu gauzak konpontzeko. Zer prezio ordaindu behar da konponketa horretarako? Norbaitek hitz egin nahiko balu, eta gauzak planteatu... ●

Argia.eus-en elkarrizketa honen bertsio luzea.



Antzinatik hitzekin jolasean



NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA

Ponpeia (Italia), 1925. Arkeologoez, beste hainbat objekturen artean, inskripzio berezi bat aurkitu zuten aztarnategi ezagunean. Latinezko bost hitzez osatutako multipalindromoa da, eta Sator Karratua deritzo. Ponpeiakoa da orain arte aurkitutako alerik zaharrena (Vesubiok K.o. 79an egin zuen eztanda, eta beraz, idazkuna hori baino zaharragoa da), baina ez bakarra; Erromatar Inperio garaiko eta Erdi Aroko Sator Karratu mordoa aurkitu dituzte orain arte Europako hainbat tokitan, hormetan edo zutabeetan zizelkatuta edota dokumentuetan jasota, eta gehienak, elizetan edo inguruetan.

Sator (erein), *arepo* (esanahi ezezaguna; zenbaiten ustez, egiptoar jatorriko izen propioa), *tenet* (eutsi), *opera* (lana, zaintza) eta *rotas* (biratu) dira bost hitzak, ezkerreko eskuinera, eskuinetik ezkerreko, goitik behera eta behetik gora irakur daitezkeenak.

Bost hitzok osatzen duten esaldia honela itzuli ohi da: “Arepo ereileak gurrupilak trebezia gidatzen ditu”. Esaldiak zentzu handirik ez duenez, asko saiatu dira karratuak ezkutatzeko omen duen esanahi misteriotsua topatzeko. Besteak beste, teoria esoterikoak, kabalistikoak... sortu dira, baina teoria zabalduena kristautasunarekin lotzen duena da. Esaterako, hitzak beste modu batera moztuta esaldi hau osatzen dela diote: “*Sat ora re poten et opera rotas*” edo “Egunero



M. DFISDERO

Oppede-ko (Luberon, Frantzia) Sator karratua, antzinarotik datorren idazkun misteriotsua.

otoitz eta lan egiteko nahikoa botere”. Interpretazioak muturrerago eramanez, letren ordena aldatuta, bi *paternoster*-ek osatutako gurutzea lor daiteke; baina interpretazio horrek akats bat dauka: bina “a” eta “o” sobera daudela. Baina hori ere beren alde baliatu dute jatorri kristauaren defendatzaile batzuek: “a” eta “o” letrak alfa eta omega dira alfabeto grekoan eta, beraz, bi aitagureak inguratzen, biltzen dituzten hasiera eta amaiera adierazten omen dute.

Beraz, letrak nahi ditugun ordenan jartzen baditugu eta komeni ez zaizkigunak kendu, azkenean, Sator Karratuak guk nahi duguna esatea lortuko dugu. Hala, konbinazioak eta ondorioak ia infinituak izan daitezke, eta geroz eta zailagoa izango da inskripzioak gordezten omen duen misterioa argitzea. Edo, beharbada, ez dago inolako misteriorik eta Sator Karratuak garbi esaten duena zera da: gizakioi betidanik gustatu zai-gula hitzekin jolastea. ●



Gerran hildakoei omenaldi zaharrena

1980ko eta 1990eko hamarkadatan, arkeologoez indusketa lanak egin zituzten Monumentu Txurian, Siria Iparraldeko Tell Banat aztarnategian dagoen 22 metroko muino artifiziala, duela 4.300 urte eraikia. Orduan bildutako materiala orain ikertu dute eta inoiz aurkitu den gerran hildakoen omenezko monumenturik zaharrena izan daitekeela on-

dorioztatu dute. Gainera, Mesopotamiako hainbat testutan deskribatzen den eraikin mota berezi baten lehen adibide praktikoa ere izan daiteke; hildakoen gorpuak edo hezurak era jakin batean antolatuz egiturak osatzean zetzan eraikuntza modu hori. Dena den, monumentua ezin da bisitatu, urpean baitago 1999an Eufra-tes ibaian Tishrin presa eraiki zutenetik. ●

ehz



1996
2021

UZTAILAK 2·3·4 JUILLET

IRISARRI NAFARROA BEHEREA
EUSKAL HERRIA

ZEA MAYS **CHILL MAFIA** **POTATO**
RUPER ORDORIKA & MUGALARIS
PROLETER **TORHEIT** **FÉTICHE**
TIKTARA **KUARTZ** **RÜDIGER**
ENTREXATAK **PHYSIS VS NOMOS**
PIRRITX, PORROTX ETA MARIMOTOTS
HITZALDI, TAILER & EZTABAIDAK

Pertsona batek erantzungo dizun telefonoa

ARGIA ETA OLATUKOOP ELKARLANEAN

Izarkomeko webgunean mezu hau irakurri dugu larrialdi telefono zenbakiaren ondoan: “Kontutan izan, larrialdiko telefonoaren beste aldean, lan orduz kanpo artatuko zaituen langile bat dagoela, beraz, jai egun edo desordutan SMSa bidali aurretik, zuk zeuk hausnartu benetan larrialdia den edo ez”. Lan ordutegira itxaron dugu eta deitu egin diegu, mezu horrek sortutako jakinmin hutsagatik.

Ezer baino lehen azaldu digute Izarkom sortzera eraman zituen ez zela proiektu enpresarial bat izan, baizik, “gure herriak telekomunikazio esparruan dituen beharrak asetzeko nahia”. Abiatu orduko ikusi zuten egunean zazpi ordu eta erdiko arreta zerbitzuaz gain, beharrezko zela larrialdiko telefono bat ezartzea. Larrialditako telefonoa bi kideren artean eramaten dute txandaka: “Lan orduz kanpo egiten dugun lan bolondresa da”.

Izarkomekin erabiltzaileek duten harremana ez da teleoperadore komertzialen berbera: “Larrialdi une batean beste edozein enpresak gutxieneko arreta eskainiko lioke eta gu aldiz gehiago inplikatzeko gara, baina erabiltzaileak ere langileengan pentsatu dezala, zein ordutan eta zertarako deitzen duen. Zerbitzu bat noski eman behar dela, baina baita ere bermatu behar da bertako langileen deskantsurako momentua”.

ORDUTEGI MUGATUAGOAN ARRETA HOBEA

“Telekomunikazioaren sektorean kompetentzia izugarria dago eta beste operadoreek jendea bereganatzeko arreta zerbitzuaren ordutegia zabaltzen dute, nahiz eta gero arreta zerbitzua bera oso eskasa izaten den”. Izarkomekoek diote haiek ez dutela lehia horretan sartu nahi. Bere indargunea arreta pertsonalizatua dela berretsi dute: “Behar duenari



benetan entzuten diogu eta behar duen bezainbesteko irtenbidea eskaintzen. Arreta telefonoa hartzen duena oso atsegina da, bere denbora hartzen du lasai eta argi azalpenak emateko, eta jendeak hori eskertu egiten du, ez makina ahots batek ‘euskaraz nahi baduzu sakatu 1’ esatea eta ondoren ‘esque ahora no está el de euskera’ entzutea” (orain ez dago euskaraz dakiena). Arreta pertsonalizatu hori teknikariek ere eskaintzen dute: “Teknikaria asko mugitzen da ikusteko benetan arazoa zein den”.

“Jendearen gehiengoa filosofiagatik batzen da Izarkomera, baina gero eta jende gehiago etortzen ari da beste operadoreekin nazkatuta dagoelako, zerbait berria ikusi duelako eta prezioak ere gustatzen zaizkiolako”. Edozein ordutan edozer eskuratu nahi izateko joerak eraginda, azken bi urteotan gehitu egin zaizkie desordutako deiak. Umerez konstatu dute goizeko 4:00etan “interneta ez dabilkit!” esanaz deitu ziotenekoa. “Bada itxaron goizeko 8:00etara, arreta zerbitzua eta teknikaria martxan jarriko dira eta erantzungo dizugu, orain goizeko 4:00etan zer nahi duzu nik egitea?”, erantzun zioten. Honela bukatu zen istorioa: “8:00etan deitu genion eta lasai bota zigun ‘a, ez, konpondu zen, orduer dira itzuli zen...’”.

GUTXIAGO DENEAN HELBURU

“Egun operadoreak borrokan sartuta daude: zenbat eta interneteko abiadura handiagoa, hobe! Lehen 100 mega segundoko asko zen, orain 300, 500, 600 eta jada giga segundoko eskaintzen ari dira... guk Izarkometik zuntzaren bidez bi abiadura eskaintzen ditugu, 100ekoa eta 600ekoa, eta deitzen duenari beti aholkatzen diogu 100 megako abiadura. Etxeko edozein erabilerarako –baita intentsiborako ere–, nahikoa eta sobera baita 100 megakoa”.

Abiadura txikiagoaren prezio berean eskaintzen digutenez, guztiok jotzen badugu ahalik internet abiadura handiena jartzera, horrek bere ondorioak dituela ohartarazi dute: “Nahiz eta gero ez erabili, abiadura hori eskaintze hutsak energia erabilera izugarri handitzen du, horrek karbono aztarna asko handitzen du...”. ●



IZARKOM KOOPERATIBA
izarkom.eus

Zer egiten du: Telefono eta Internetarako zerbitzuak sarbidea bermatuko digun Euskal Herriko telekomunikazio operadore kooperatiboa da.

Langileak: 4.

Noiz sortua: 2018an.

Egoitza: Irunen.

Harremanetarako:

943 569 214 /
arreta@izarkom.eus

DATUEN PRIBATUTASUNA

Agur Google Analytics, kaixo Matomo

 ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA

Ohikoa da sarean webgune bat martxan dugunean horren mugimendua zertan den jakiteko eskura dauden tresnak erabiltzea. Papereko edukia zenbat etxetara, zenbat jenderengana heltzen den jakin dezakegu harpidedun kopuruagatik, ale salmentatik; baina zerbait fisikoa ez denean, edozein gailutatik webgunerako sarbidea dugunean, nola asmatu zenbat irakurle dabilzan gure edukietan murgilduta?

Sarean harrapatu gintuztenerako, tranpa asmatu zutenek behar hori aurreikusia izango zuten. Behar hori piztu dute, baita asetzeko tresnak sortu ere. Zein gozoki goxoak eskaintzen dituzten. Baina zeren truke? Deabruarekin tratua egitea ederki ordaintzen da. Webguneen jabeoi funtzionalitate oso interesgarriak oparitu dizkigute: bisiten trafikoa aztertzeke tresna oso ahaltsuak, irakurleek gure edukia sare sozialetan partekatzeko erraztasuna... Baina gure webguneetan sartu ondoren, birusek bezala, beren onerako erabiltzen dituzte gure azpi-egiturak. Datuak dira XXI. mendeko petrolioia eta horixe da, hain zuzen ere, infiltratu teknologiko horiek bilatzen dutena: gure webguneetara sartzen diren pertsonen datuak.

GOOGLE ANALYTICS ERABILTZEARI UTZI DIOGU

Webgune gehienetan erabiltzen den tresna horri esker orririk bisitatue-nak zein diren jakin dezakegu, jendea zer webgunetatik datorren... Baina multinazional teknologikoak gutako bakoitzari buruz dituen profil per-



tsionalak gizentzeko behar dituen datuak bidaltzen dizkiongu ordainetan. Horregatik da doako zerbitzua, gu, gure datuak, garelako salgaia.

Norbere zerbitzarian instalatu daitekeen Matomo kode irekiko tresna libre erabiltzen hasi garelako jakinarazi nahi dugu. Matomok, Google Analytics-ek bezala, gure webguneen trafikoa aztertzeke aukera ematen digu, baina datuen burujabetza eta bisitarien anonimotasuna mantenduz.

Sare sozialen jarraipen elementuak ere kendu ditu Argiak. Kasu honetan ere funtzionalitate baliagarriak eskaintzearen aitzakian sarean egiten dugunaren jarraipena egiten dute multinazionalak.

Egoera iraultzeko, edukiak sare sozialetan partekatzeko botoi propioak jarri ditugu multinazional horien ofizialen ordean. Botoi ofizialek bisitatzen ditugun orri guztien berri ematen diete enpresei, baita botoiak erabiltzen ez ditugunean ere. Orain ezarri ditugun botoiek ez daukate ezkutuko funtzionalitaterik. Botoian klik egitean dagokion sare sozialean edukia partekatzeko aukera agertuko da eta ez besterik. ●

ONGI ETORRI KOMUNITATERA!

Arazoi hauek eman dituzte egun hauetan ARGIA Jende egin diren kide berrietako batzuek, komunikabide independente hau ekonomikoki babestu eta proiektua bultzatzeko. Ongi etorri denei, komunitatera!



“ARGIAREN begirada atsegin dudalako. Momentu hauetan ekonomikoki laguntzeko moduan naizelako”

Segurako Eider

“Garai zail hauetan informazio independenteak sekula baino garrantzi handiagoa duelako”

Markina-Xemeingo Maite

“ARGIAK bizi luze eta oparoa izaten jarraitzea nahi dudalako. Gai eta ikuspegi oso interesgarriak eta beharrezkoak jorratzen dituelako. Eta alabei ere helarazi nahi diedalako ARGIAREN ikuspegi kritiko eta ezkertiarra”

Lekeitioko Nahia

“Kazetaritza ona, herriaren aldekoa eta buruari buelta batzuk emateko aproposa delako”

Azkoitiko Jon

“Azken esperantza zaretelakotz.... Herriak bizi behar duelakotz... Euskalduna naizelakotz...”

Berriozarko Fermin Xabier

ILARRA BARATZEAN, GUTIZIA ETA ALT XOR



JAKOBA ERREKONDO
JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS

Ez da ilarra, ez da gezurra, alegia. Gezurra esateko ilarra, tipula eta kalamua behintzat erabili izan dira. A zer kalamua! Tipula galanta! Polita ilarra!

Ez da ilarra ilarren (*Pisum sativum*) sasoia amaitu dela. Ilarrak ezin du beroa eraman, ni ere horrelakoxea naiz. Beroa etorri orduko zaputza, ez dut erdia ere balio. Ilarra beroak akabatu egiten du. Neguko hotzarekin hazten da eta udaberriko freskurarekin loratu eta fruitua eman. Sasoi betea joan da, eta bazterren batean egon daitekeen hondarren bat izan ezean zail izango da aurtengoan ilar berria topatzea. Eskerrak gero eta gehiago jasotzen diren izozkailuetan.

Ilar sasoia amaitu denean leka eder horiek hazi eta eman dizkigun zarba edo mastra hor dago baratzean ia edo erabat ihar. Arbatzeko jarritako arbaztan, makilan edo sarean kiribilduta dagoez, haiekin batera tira eta ateratzeko ohitura oso zabaldua dago. Hobeto egin daiteke ordea.

Ilarrak, gainontzeko lekadunek bezala, sustraletan bakterio berezi batzuk izaten ditu apopilo. Elkar laguntzen dute eta biak pozik. Bakterio horiek airean ugaria den nitrogenoa hartu eta lurrera kateatzen dute amoniako forman. Gero nitratoa bilakatuko da eta horrekin landareek aminoazidoak sortuko dituzte, proteinak eraikitzeko behar dituztenak. Ilarraren zarba ihartzen denean gai nitrogenodun horien guztien iturri da. Zarbak erre eginez gero gai horiek denak galduko dira. Luar pilara botatzen baditugu hantxe luartu eta hurrengo ongarriketan joango dira. Onena zarbak hantxe bertan lurrari nahastea litzateke; zarbak bezala sustraiak bertan utzi eta haien nitrogeno eskuzabaltasuna hurrena datorren barazkiak eskertuko du. Onena hostoa jaten diegun barazkiak jartzea da, horietan baliatzen baita ondoen nitrogeno hori. Ilarraren eta bere sendiko lekadunen lan bikain hori ederki adierazi zuen Adrien Gachiteguy benedi-



Ilar zarbak baratzean ihartzen uztea eta lurrari nahastea onuragarri da, nitrogenoa zabaltzen duelako. Argazkiak: Matteo Regla Dorronsoro.

tar eta nekazaritza ingeniari aldudarrak 1963an argitaratutako *Laborantza, laborantzatik hobeki bizitzeko* liburuan: "Landare, ostu biribil, lekadunek (luzerna, trella...) badituzte erroetan trunpilo batzu, azotaz aberats diren mikrobez beteak". Luzerna edo alpapa (*Medicago sativa* subs. *Sativa*) eta trella edo hirsutak (*Trifolium* spp.) aipatzen ditu ilarren familiako, baina bada ugari.

Ilarrak berak asko uste gabeko mese-dea ere ekarri zuen. Genetikaz dakigun ia dena Gregor Mendel austriarrak XIX.

mendean ilarrekin egindako ikerketekin abiatutakoari zor diogu. Hura ere abade...

Zuk zeuk abadeak bezala jan nahi baduzu, Apeza eta lurra eman gabe ez dira engainatzen dio esaerak, eta udari agur eta udazkenari ondo etorri esanez ilar freskoak jan nahi badituzu, hil honen eta hurrengoaren ilgoretan erein. Onenak ilar motzak eta egun egokienak ekainaren 25a eta 26aren goiza eta uztailaren 3aren arratsalde, 4a eta 5aren goiza. Azken aukera gisa uztailaren 23a eta 31. On dagizula. ●

ETXALDEKO EMAKUMEAK

EMAKUME BASERRITARRAK EUROPAKO NEKAZARITZA POLITIKAZ HAUSNARTZEN

GARAZI ZABALETA
@TIRIKITRANN

Europan elikagaien ekoizpena zehazten duen politika nagusia Nekazaritza Politika Bateratua (NPB) da, eta 2019tik Europako Itun Berdea ere martxan dago, ustez, Batasuneko ekonomia iraunkortasunerantz bideratzeko. Europako markoa sarritan urrun xamar ikusten bada ere, eragin zuzena du hurbileko nekazarien egoeran eta egunerokoan dituzten zailtasunetan. Etxaldeko Emakumeak mugimenduko baserritarrak elkartu eta dokumentu bat landu dute Europako politika horiek aztertze eta haien gogoetak eta proposamenak emakume baserritarren ikuspegitik lantzeko. Kolektiboaren webgunean dago dokumentu osoa irakurgai, baina Maritxu Arroyo kideak zertzelada batzuk eman dizkigu.

Zein asmorekin ateratu duzue NPBen eta Itun Berdearen inguruko dokumentua?

Lehen sektorerantz bideratutako Europako politika zaharrena da NPB, aurrekontu handiena duena, eta beraz, eragin handia du gaur egun nagusi den nekazaritza ereduarekin. Politika horrek eta 2019an ateratu zuten Itun Berdeak emakume baserritarren bizitzan eta elikadura sistema osoan duen garrantzia aztertzea eta horien aukeren eta mugen inguruan hausnarketa kolektiboa egitea garrantzitsua da guretzat.



2017ko erreforma azaldu duzue txostenean. Zein dira erreformak dakartzan aukerak eta mugak?

Orain estatu bakoitzak plan estrategikoa garatzeko aukera duela da aldaketa nagusia. Erabakiak herrira eta lurrera hurbiltzen ditu nolabait, eta horri potentzialitatea ikusten diogu, baina, beste aldetik, erabakiguneak banatzeak politika bateratuaren indarra galtzea ere ekar dezake, NPB ahultzeko arriskua. Beste aldaketa nagusia "ekoeskemak" sartzea izan da: laguntzak jasotzerakoan ingurumen irizpideak ere diruarekin lotzea dakar horrek. Tresna interesgarria izan liteke, baina beti bezala agroindustria-rekin topo egin dugu, inbertsio handiak egiten ari baitira produkzio handiak ekologikorantz transformatzeko baina eredu bera ezertan aldatu gabe. Azken

finean, erreforma honek ez ditu merkatuaren arauak zalantzen jartzen, eta beraz, ez ditu lehen sektorearen benetako arazoak konpontzen.

Eta Itun Berdeak?

2019an ateratu zuten markoa da, elikagaiekin eta lehen sektorearekin lotuta Europan ekonomia iraunkorra bultzatzeko helburuz abiatua. Garrantzitsua da lehen aldiz Europako politika batek klimaren inguruko kezka, arlo soziala, belaunaldien arteko erreleboa eta agroekologiaren eta nekazari txikien garrantzia kontuan hartu dituelako. Baina noski, eredu kapitalista eta patriarkala ez du kuestionatzen, eta emakume baserritarren aipamenik ere ez da egiten. Euskal Herrian marko politiko propioa sortzeko eta eragiteko aukera eman lezake, dena den.

Eragiteko, zeintzuk lirateke eman beharreko hurrengo pausoak?

Eztabaida baserritar mugimendutik gertatu osora zabaltzea da lehentasuna, pisu guztia nekazariengan jartzen delako bestela. Horregatik ateratu dugu dokumentua, debate hori zabaltzeko. Eusko Jaurlaritzak mahai bat ireki behar luke plan estrategikoa propioa sortzeko, eztabaidatzeko, eta pentsatzeko: nola trantsitatuko dugu nekazaritza politika batek elikadura politikara? ●



Zure osasuna zaintzeko garaia da.

Bertokoa eta ekologikoa kontsumitzeko garaia da.

eko
lurra



Euskadiko Elikagai Ekologikoak
Alimentos Ecológicos de Euskadi

VELVET MAFIA

1960ko pop kultura piztu zuen gay komunitatea

Erabat finkatuta ditugu gure iruditeria popzalean 1960ko hamarkadako gizonezko rock taldeen melodia eta erritmoek emakumezko ikus-entzuleengan eragiten zituzten jokabide irrazionalak: intziri basatiak, gorputz-dardara primitiboak, dantza frenetikoak eta sexuaren frenesiak ekarritako zorabioak. Haatik, publiko zabalak ezer gutxi daki Ingalaterran sortu eta AEBetara eta Europara esportatu zen pop eztanda ordezkatzeko zuten mutil nerabez osatutako banda ospetsuen atzean hainbat gay zeudela. Hain justu, gay haiek moldatu zuten Swinging London (Londres festazalea) fenomenoak, 1960ko hamarkadan Londresen loratu zen modaren eta kulturaren eszena; leherketa koloretsu eta hedonista hori gerora planeta osora zabaldu zen, mendebaldeak gaindituz. Halaber, kulturaren enpresari gay haiek laguntza-sare sendo bat eraiki zuten elkarri laguntzeko, kultura-industria osoa haien mende izateko, eta azkenik, poltsikoak zale nerabeek gastatutako sosekin betetzeko.

 JULEN AZPITARTE

LGBTQ esparruan aditu Darryl W. Bullock autore ingelesak adiskidetasunean oinarritutako kolektibo gay haren historia eta istorioak bildu ditu *Velvet Mafia. The gay men who ran the swinging sixties* (Belusezko mafia. 1960ko hamarkadako urte festazaleak abiatu zituzten gayak). Belusezko mafia hori, besteak beste, ondoko gizonek osatu zuten: Beatles taldearen manager Brian Epstein, Larry Parnes enpresaria, The Who bandaren manager Kirt Lambert, Joe Meek disko-ekoizlea, EMI diskoetxeke buru Joseph Lockwood, Bee Gees eta Cream taldeen manager Robert Stigwood, Marc Bolan musikariaren eta The Yardbirds taldearen ordezkari Napier Bell, David Bowieren manager Ken Pitt eta Charis-

ma diskoetxea eratu zuen Tony Stratton-Smith. Kontakizuna 1950eko hamarkadan hasten da, AEBetatik inportatutako eta Ingalaterran bertan sortutako lehen *rocker*-ekin, eta 1970eko hamarkadara arte luzatzen da, glam mugimenduaren izpi dirdiratsu eta androginoen argipean.

Gizon gay boteretsuen sexu-jarduna ezkutuan gertatu zen, homosexualitatea Erresuma Batuan ez baitzen despenalizatu 1967ra arte. Muga administratibo horren ondorioz, enpresariok haien babesean zeuden izar gazteek profitatzen ziren, maindireak eta bihotzak berotzeko. Halere, eta liburuaren egileak nabarmen-tzen duenez, sasoiko manager, ekoizle eta diskoetxeetako jabeen xede nagusia ahalik eta gehien aberastea izan zen. "Ika-

ragarri garrantzitsua da jendeak ulertzea LGBTQ pertsonak ez zirela gaur egungo rock-kulturak sortu zuenaren zati bat soilik, haren atzean zegoen indar eragilea izan zirela. Gauzak aurrerantz bultzatzen zituzten pertsonak ziren. Gauza berrienak bilatzen zituztenak, kultura-iraultza has-teko", azaldu du Darryl W. Bullockek *The Guardian* egunkarian.

Haatik, izar jaio berri batzuen musika-ibilbideak bortizki amaitu ziren sexu-harremanak izateari uko egin ziotenean; esaterako, Larry Parnes musika-enpresari aitzindariak harreman oso gatazka-tsuak zituen ordezkatu zituen izar gazteekin: sekulako laguntza eskaini zien haien sormena bideratzeko eta arrakasta eskuratzeko, baina ekonomikoki eta sexualki ere esplotatu zituen. Parnes sarritan saiatu zen gaztetxo rock zaleekin oheratzen, adingabeak izanagatik ere. Gauza bera egin zuten Brian Epsteinnek eta Robert Stigwooddek. "Alde zeharo immoralak zeukaten", baina haien helburu nagusia sosak egitea zenez, izar askok ibilbide luzeak eta arrakasta handikoak garatu zituzten, sarritan bortxaz tratatuak izatea onartu izanaren ondorioz. Musikariak, trukean, babes artistiko handia jaso zuten manager onenen aldetik. Kasu askotan konfiantza osoko harremana gauzatu zen, Kit Lamberten eta The Who taldeko buru Pete Townshend artean kasu: managerrak bere ezagutza artistiko eta musikal guztia erabili zuen gitarra-jotzaileak *Tommy* rock opera historikoa egin zezan.

AMAIERA TRAGIKOAK

Testuinguru horretan, txanponak eta ospea bor-bor zeudela, profesional entzute-tsu eta ahaltsu horietako batzuek heriotzaldi gorabeheratsuak bizi izan zituzten. Haien sexualitateagatik jazarriak izan ziren eta sufrimendu horren ondorioz, heriotzarako bide kontzientea ere hartu



Brian Epstein, atzean Beatles taldea duela zuzenekoia ematen.

zuten batzuek. Joe Meek ekoizle berritzaileak bere buruaz beste egin zuen 1968an: estudioko aginte-kabinan sartu zen, bere etxejabea estudiantik ateratzen saiatu zen, eta eztabaida latza izan ondotik, bizkarrean tiro egin zion, eta gero arma berekin bere buruaz beste egin zuen, Buddy Hollyren heriotzaren urteurrenaren egunean, otsailaren 3an. Aurretik, baina, Meek poliziak atxilotu zuen komun publikoetan gizon batekin sexua izateagatik. Gertakizunak oihartzun handia izan zuen prentsan. “Gertaera hark gauzak martxan jarri zituen bere buruaz beste egin zezan”, Darryl W. Bullocken arabera. Ironikoki, 1967an, Erresuma Handian homosexualitatea despenalizatu zenean, homosexuallekiko jazarpena areagotu egin zen.

Horretaz gainera, belusezko mafiosoetarik asko gay-ak ez ezik juduak ere baziren. Identitate bikoitz horren harira, gatazka kartsuak gertatu ziren gizonen burmuinetan. Horren erakusle Brian Epstein, Beatles taldearen manager sonatua, *bosgarren beatle*-a. “Horrekin guztiarekin sutsuki borrokatu zen [Epstein]”, dio Darryl W. Bullockek. Auto-suntsitzailea zen, drogazalea, eta amorante desegoki eta mingarriek eragin zioten malenkonian hondoratuta bizi

zen. Gizonek kolpatu eta xantaia egin zioten. Anabasa afektiboan hondoratu. 1967an zendu zen barbiturikoen gaindosiagatik. Epstein hil ondoren, John Lennonek aitortu zuen Beatles taldea amaitzeaz zegoela. “Hor konturatu nintzen arazotan geundela”, esan zuen Lennonek 1970ean. Liverpool hiriko lau musikarrien eta milioika pertsonen bizitzak aldatu zituen Beatles taldearen managerrak, eta horrekin batera, poparen eta rockaren historia irauli zuen, betirako.

Kit Lamberten amaiera ere azpimarregarria da, gertakari odoltsua: 1960ko hamarkadaren amaieran alkoholismoan ito zen, eta hamarkada bat beranduago zendu zen, droga-saltzaile batek emandako jipoiak eragindako garuneko hemorragia baten ondorioz.

Bullocken arabera, gizon horiek sortu eta bultzatu zuten eszena berria eta festazalea ezinbestekoa izan zen tabuak aldatzeko, eta *Velvet Mafia*. *The gay men who ran the swinging sixties* liburuaren bidez aitortza egin nahi izan die egindako ekarpenagatik. Merezitako aitortza ez bada ere, mundu guztira zabaltu zen pop eta rock kulturaren atzean isilean gordetako LGBTQ komunitatea zegoela azaleratu du idazle britainiarrek.

EMAKUMEEN ARRASTORIK EZ

Bullockek ez die emakumeei erreparatu bere lanean. “Horrelakoak ziren garai hartako gauzak. Une hartan, emakumeek etxean geratu eta haurrak hazi behar zituzten”. Halere, 1960ko hamarkadan, Britainia Handiko rock eta pop eszenan baziren emakume lesbiana boteretsu gutxi batzuk, nahiz eta idazleak bere liburuan jaso ez; tartean, *Ready Steady Go* pop musikari buruzko telebista saio aitzindarian parte hartzen zuten taldeak ekartzen zituen Vicki Wickham ekoizlea. Wickham lesbiana da, baina bere aburuz sexualitatea ez da inoiz arazo izan berarentzat. “1960ko hamarkadan ez nintzen armairutik atera. Ez nekien zer nintzen benetan. Denek zekiten ni lesbiana nintzela, baina hain ginen politikoki inkontziente”. Wickhamek ibilbide nabarmena egin zuen manager gisa, besteak beste, Dusty Springfield eta LaBelle artisten karrerak gobernatu zituen. Biak ala biak emakumezko artistak. Londresen jaioetako Springfieldek *Dusty In Memphis* izenburudun soul disko klasikoa grabatu zuen 1969an, AEBetako Memphis hirian. LeBelle berriz, Patti LaBelle musikariak 1970ean eraturako soul eta disco taldea izan zen, eta 1975ean *Lady Marmalade* hit entzutetsua grabatu zuen. ●

AMONDARAIN: A MONDRIAN RAIN

Irudiak astintzea izenburua darama José Ramón Amondarain (Donostia, 1964) artistak Donostiako Kubo Kutxan zabaldu berri duen erakusketak. Atzera begirako gisa dago planteatuta proiektua, eta agian horregatik, erakusketak bisitaria lehen momentutik kolpatzen du: aretoan ez dago margolanik eta Amondarain, batez ere, bere margolanengatik da ezaguna. Beharbada, bizi guztiko lanak aurkeztea helburu duen erakusketa batean mihiserik ez erakustearen hautua, keinu erabakigarri hori, da proiektua interesgarri bilakatzen duena.

 JONE ALAITZ URIARTE  JUANTXO EGAÑA

Nola komisariatzen da atzera begirako bat atzera begirako baten lehen premisa ukatzen denean? Beste era batera esanda, nola planteatzen da ibilbide artistiko baten berri ematea, ibilbide horretako mugarrak aurkezten ez badira? Lan horretan aritu da Francisco Javier San Martín ikertzaile eta komisarioa, Leioako Arte Ederren Fakultateko ikasle askorentzako irakasle ezaguna. Amondarainen 35 urtetako ibilbide artistikoa tailerreko lanera enfokatu du, urte hauetan guztietan bertan gertatu diren proba, soberakin eta esperimentazioak argitaratu ekartzeko. Lanak aurkezteko garaian ez da ordena kronologikorik jarraitu, eta bisitariak nekez aurkituko du obren gaineko informazio gehigarria emango duen txartel informatiborik. *Irudiak astintzea* erakusketan, Amondarainena bezalako ibilbide oparo baten atzean egon zitezkeen garai konkretuetara atxikitutako estiloak edo joerak desagertu egiten dira eta obrak metatuta eta nahastuta aurkezten dira.

Bisitariak Kuboko areto nagusia bisitaratu bezain pronto korrika ateratzeko desira sentitu dezake, bertan pilatzen den obra kantitatea izugarria baita. Bai-

na gutxinaka, eskulturez gainpopulatutako *baso* horretan sartzen hasita, Amondarainen kodigoak identifikatzen hasiko da, analogia batzuk bistaratzen, umore zantzuak han eta hemen ikusten, eta konturatu orduko, denbora luzea pasako zaio estilo eta material ezberdinez egindako eskulturaz inguratuta dagoen bitartean. Halaber, prozesu horretan murgilduta dagoela, egiaztatuko du erakusketan pintura egon badagoela, baina bere ohiko forma planotik aterata; mihisetik ihes egin du eta forma solidoa hartu du. Hiru dimentsioko margolana, alegia.

Amondarainek pintura hedatuaren ideia praktikan jartzen du, koadroaren bi dimentsioetatik haratago pinturaren balizko aukerak arakatzearen aldeko joera artistikoa. Zentzu horretan, 90eko hamarkadaz geroztik, gaztelaniazko *mocho* terminoaz izendatzen dituen olio margoarekin egindako forma anitzeko artefaktuak daude. Pintura –gehienetan olio– metatuz sortutako piezak dira, artistak pinturarekin esperimentatzeko duen desiratik sortutako forma solidoak. Pintura hedatuaren aztertari jarraituz, margolariaren lanari erreferentzia zuzene-

na egiten dion serie bat topatuko dugu erakusketan: margolari paleten seriea. Berrogeita hamar margo-paleta baino gehiagok osatzen dute sorta, material askotarikoekin egindakoak –dilistak, tostadak eta txokolatea tarteko–, eta hainbat motibo eta estilo gurutzatzen dira bertan. Gustu guztietarako adina paleta daude.

Espazio nagusi horretan badago biziki atentzioa ematen duen beste elementu bat: idulkiak. Eskultura oro idulki baten gainean dago kokatuta, eta idulki horiek tamaina, kolore eta material askotarikoekin egindakoak dira; konstelazio bat osatzen dute beren osotasunean. Abangoardiako eta modernitateko artistek krisian jarri zituzten idulkiak, uste baitzuten oztopoa zirela artelanaz gozatzeko, interferentzia bat eskulturaren eta bisitariaren artean. Amondarainek, ordea, biltegitik idulki guztiak berreskuratu ditu eta horien gainean aurkeztu ditu urte hauetan guztietan tailerrean egin dituen lanak. Tamaina eta akabera desberdinetako idulki horiek baso sentsazio hori areagotu egiten dute; espazioa modelatzen duen apustu ausarta da.



Artelaren artean, besteak beste, Oteizaren klarionen laborategiko forma geometriko bat aurkituko dugu dimentsio handietara eramanda. Egurrez eginda dagoela dirudien arren, behin hurbiletik ikusita egiaztatuko dugu margoa dela egur itxura ematen diona; eta eskultura bera inguratzen badugu, barrutik hutsik dagoela ikusiko dugu. Illo beretik, Oteizaren kaxa metafisikoen erreplikak ere aurkituko ditugu pintura brotxakada sendoeekin eginak. Aretoaren hondoan kortina garden bat bistaratuko dugu, eta bertatik zintzilik dozenaka pieza eta forma anitzeko gailuak, pasa den urteko azaroan Donostiako Cibrian galerian izan zuen *A Tientas (Itsumustuka)* erakusketan egin zuen tankerakoa.

Amondarain artearen historiari etengabe begiratzen dion artista da, eta bere lanerako garrantzitsuak izan diren artisten lanak modu batean edo bestean txertatzen ditu. Modu horretan, artearen historia modernoan erreferenteak izan diren artisten izenekin anagramak sortzen ditu: Lucio Fontanatik *Tu Lacan Fin* aipua sortzen du, Mona Hatumetik *Oh Mama Tu no*, eta *Law or Handy*



Andy Warholen letren konbinatoriatik asmatzen duen hitz berria da. Bere abizena osatzen duten letrekin ere aukera infinituetan aritu izan da Amondarain, A Mondrian Rain gisako hitz-jokoak eginez. Anagramekin egiten duen antzera, abangoardiako hainbat artistaren –Frank Stella, George Bracke, Joseph Albers– estilo piktorkoa gerrako hegazkinen gainazalean margotu du, *Hegazkinak* serierako. Koadroak izan zitezkeen hegazkinak dira, eta berriz ere edozein gainazal koadro bat margoitzeko egokia dela adierazten du Amondarainek. Keinu hori indartzeko asmoz, hegazkin horiek koadroak garraiatzeko erabiltzen diren egurrezko kaxatan aurkeztu ditu.

Bukatzeko, Kubo aretoko bigarren solairuan bi kanaletako argazki proiektzioa dago. Bertan, argazki eta irudi sorta heterogeneoa proiektatzen da, modu batera edo bestera artistari lana egiteko orduan inspiratzaile edo erabilgarri suertatu zaizkionak. Irudi horiek segidan ikustearen ondorioz, badirudi artistaren lan egiteko metodologia zein den asma dezakezula: analogiagatik, kontrasteagatik, edo hustutzeagatik funtzionatzen duten irudiak dira. Kimikari batek probetetan substantzia askotarikoak nahasten lan egiten duen bezala, Amondarainek irudiekin egiten du lan, irudiak behin eta berriz astinduz, eta astintzearen ondorioz, erakusketa honetan aurkitu ditzakegun obrak azaleratzen dira. ●



LIBURUA

Ur beltzetako tximeletak



GOIENALEUS

**LAZUNAK
AZKAZALETAN**
OIHANA ARANA
SUSA

AINHOA ALDAZABAL GALLASTEGUI

Lazunak azkazaletan. Bi hitzetatik bat ez dut ulertu. Lazun. Google bilatzailea. Elhuyar hiztegia. Euskarazko sinonimoa da guk erabiltzen duguna: korrokoi. Gaztelaniazko adiera ere ez nuen ezagutzen. Eta hala ere, hiztegiak itzuli ezin duen zerbait esan nahi digu poetak izenburuarekin. *Lazunak azkazaletan*. Liburu barruan aurkituko dugunaren adibide eta abisu. Biak batera.

Liburua hainbat ataletan banatuta dago. Hitzaurre gisako poemari (*Fikzioaren apologia*) sei kapitulur jarraitzen diote eta epitafioa den azkenarekin amaitzen da. Izenburu bereziekin hasten ditu atalak: originalak eta ebokatzaileak izateaz gain irakurlea jokoza kanpo uzteko duten gaitasuna azpimarratuko nuke. Hau da, ulerterrazak izanagatik surrealistikak diren irudiak ere ekarriko dizkigu, kontrastea sortuz modu horretan.

Arkatza hartuta saiatu naiz atal ba-

koitza egituratzen duen kontzeptu edo ideia multzoak jasotzen. Ezinezkoa egin zait. Ideia batek jarraikortasuna zuela pentsatzen nuen bakoitzean... katakrak! espero ez nuen zerbaitekin topo egin dut. Eta bai, izugarri gustatu zait hori berori. Hiru-lau buelta eman dizkiot liburuari kritika hau nola idatzi asmatzeko. Eta benetan diotsuet: ezinezkoa da Oihana Aranak liburuan egiten duen guztia laburbiltzea.


Irakurri dudana bakoitzean poema batek edo besteak hartu du nire arreta. Iradokitzailea egin zaidan zerbait aurkitu dut irakurri dudana aldiro. Eta aldi guztietan sentitu dut idazlea nirekin jolasean ari zela. Edo bere buruarekin jolasean ari zen bitartean eskutik eraman nau. Hitzekin jolasten du, bai. *Zaunk* izeneko poema ikusi besterik ez dago, 17. orrialdean. Baina ideiekin ere jolasten du. Irudiekin. Hitzekin pentsatzen du eta

pentsarazi egin dit.

Azaleko begiratu batean egunerokotasunaz eta txikiar ari dela pentsa genezake. Baina irakurraldi pausatuak erakutsiko digu esaten duena baino gehiago esaten duela. Bizi dugun jendarteari buruzko ikuspegi kritikoa duela. Gauzei beste leku batetik begiratzeko gaitasuna du Aranak.

Etxea liburu guztian zehar errepikatzen den kontzeptuetako bat da. Etxea delako gorputza, bizitokia, familia, ezkutan izan nahi ditugun gauzen gordailu eta babesa. Batzuetan etxea logela baino ez da. Bestetan hozkailua. Edo bestearen sorbalda.

Oihana Arana idazle eskoriatzarrak denbora luzez gogoratuko dugun poema liburu idatzi du. Askotan irakurriko ditudan hitzak aurkitu ditut bertan. Mundu eta izar berri asko dituen galaxia literarioa. ●



MUSIKA

Denbora da epaile onena



AXIBER PALACIN



NORK EPAITUKO DU EPAILEA?

LARRU BELTZAK

AUTOEKOIZPENA

IKER BARANDIARAN

Askotan esan izan da gazteak direla musikaren oraina eta etorkizuna; gazteei lekua egin behar zaiela haiek dituzten kezka eta musika estiloak adierazteko. Baina, era berean, onartu beharra dago zoritxarrez ez dagoela horrenbesteko 'itxaron zerrendarik' eta edozeinek –adinaz harago– daukela eskubidea barruan daukana ateratzeko.

Azken hamarkadetan argi ikusi da Oñatin punkak presentzia handia izan duela. Horren erakusle argia da Oñatiko rockaren historia ederki errepasatuta Iñigo Biain Berraondok idatzitako *Alanbre-hotsa eta jazbana. Oñatiko rockaren historia txikia* liburua.

Hori esanda, herrian punk giroan ari-tu izanagatik eskarmentua daukan boskote batek talde berria sortu du: Larru

Beltzak. Underground giroan zeresana emandako taldeetan aritutakoak dira bostak; hala nola, Sospechosos, Golpe de Estado, Papalagi, Antihumano, CC627 eta beste batzuetan. Eta oraingoan ere, ez genuen kontrakoa espero, punka da esku artean dakarten proposamenaren oinarria, baina badiu ñabardura asko. Naiarak oso modu garbian abesten du, eta estreinako disko honetarako idatzitako hitz esanguratsuak merezi beste nabarmentzen dira. Melodia itsaskorrak landu dituzte, 'gutxiago gehiago da' leloari jarraituta ihes egin diote punkaren garraztasunari eta gitarren gehiegizko presentziari. Iraganeko soinua landu dute.

Dena lehertu baino lehen hasiera ederra da: antzinako soinua daukan

punk melodikoa, sarkorra. *Bidejokoe-tan* hardcore melodikoa eta punk-rock gitarreroa ezkontzen dituen pieza bo-robila. *Nork epaituko du epailea?* Altsa-suko gazteen aldeko eta mendekuarien kontrako deiadar oso-oso melodikoa. *Bizitzaren gidoia* The Boys-en arrasto handia daukan punk sarkorra. *Zerta-rako?* punk-rock-and-rolleroa. Hortik aurrera diskoan kantei amorrua eta indarra gehitzen zaie: *Erretzen nau* azkarragoa da, ukitu ilun eta erritmo zein armonia jostariak ditu. *Ehortzi nahi nauzue*-k denetatik dauka: rock urbanoaren zantzuak, 77ko punkaren leloak... Bukatzeko, *Bidai luze bat* ia-ia Commando 9mm-ri gorazarrea da; me-lodia borobila badu ere, punkaren ostia txarrena dauka. ●



Hiru erakusketa eta *photocall* pare bat

 IÑIGO BASAGUREN-DUARTE

Zein Photocall aukeratu behar duzu?”. Ohikoa duen irribarre bihurriarekin bota zidan lagunak. Egun hartan hiru erakusketa ikustera joateko aukera zegoen Bilbo Zaharrean eta Alde Zaharrean. Hiru aukera 700 metrotan. Ohikoa zuen irribarre bihurriarekin bota zidan lagunak, askotan arte erakusketak 24 orduko *Instagram*eko istorio efimeroak sortzeko aitzakia baitira hiri hone-tan, *checkpoint* bat balira bezala, bisitatu beharreko mugarri bat bezala. Han egon izanaren marka uzteko beharra dute batzuek. Hiruetara joango nintzela erantzun nion lagunari. Erakusketak ikusteko benetako gogoia nuen arren “kronika idatzi behar dut-eta” bota nion irribarrez. Eta horrekin guztiarekin, nire lagunarekin eta maskara azpiko irribarre zinikoarekin Bilbo Art & Fashion Evening moduan izenda litekeen ibilbideari ekin genion.

Lehen geldiunea Goienkaleko Bully arropa dendan izan zen. Orain dela gutxi

ireki du bigarren eskuko arropa denda honek eta marka gorenetakoa produktua eskaintzeaz gain erakusketak egin hasi dira. Mikel Erkiagaren *Untitled ala ez* erakusketa osatzen duten olio margolanen paisaia koloretsuak izan dira Bullyren hormak konkistatu dituzten lehen artelanak.

Jendez gainezka zegoen Bully-tik urrundu, ibaia gurutzatu eta Okela sormen lantegira joan ginen jarraian. San Frantzisko kaleko gune artistikoak bere 25. Artisten Meeting Point-a zuen erakusgai, GAILUA izenburupean Pepo Salazarren eta Nadia Bakarteren obrekin osatua. Azken honek aerosolez egindako irudi ilun eta durduzagarriak ikusteko birritan barneratu ginen Okelako labirintoan, gunean gu geu bakarrik egotearen pizgarriak lagunduta. Bakarteen irudien iluntasunak horma aseptiko zuriekin sortzen zuten kontrasteak eta irudiei zerien magnetikotasunak feno-

meno parapsikologiko baten antza ematen zieten.

Azken *checkpoint*-a Cortes kaleko SC Gallery izan zen. Amaya Suberviola, Ekta, Nuria Mora, Isaac Cordal, Pablo Merchante eta Sebas Velasco-ren talde erakusketa zegoen bertan. Hainbeste artisten lana gela berdinean batzeak nahiko emaitza irregularra sortu zuen. Erreklamorik handiena Sebas Velasco-ren margolan errealista izan zen. Bere irudi hiritarrek gaur egungo alienazio eta bakardadea zein sistemaren kolapso egoera ondo baino hobeto islatzen dute. Oihal txikian egindako obra bakarrik margotu dituen horma-irudiekin alderatuta ikusgarritasuna galtzen duen arren, emaitza guztiz dotorea da.


Irribarre zinikoa agortuta, *photocall* giroaz aspertuta eta artelan batzuekin beste batzuekin baino gehiago gozatu ondoren, *influentzia* eremutik urruntzea erabaki genuen beste giro baten bila. ●



				8	4	7	2
3						8	
			7				9
6			8			3	
9	8	7			6	5	1
	5		6				8
8			2				
	6						4
1	4	5	7				

5x5

1. Laztan, kuttun.
2. Aitormen.
3. Erabat lasterka.
4. Kaleko jokoak.
5. Egoki.



5. ERAKO
4. TOKAK
3. ITOKA
2. AITOR
1. MAITE

1	4	5	7	9	6	2	8	3
7	6	2	8	5	3	1	9	4
8	3	9	4	2	1	7	6	5
2	5	3	1	6	7	9	4	8
9	8	7	2	3	4	6	5	1
6	1	4	5	8	9	2	3	7
4	2	8	6	7	5	3	1	9
3	7	1	9	4	2	5	8	6
5	9	6	3	1	8	4	7	2

					S	V	K	O	N	E	R	A	
						K	V	R	E	L	U	R	
					p	O	L	E	M	I	K	A	
V	A	E	T	A		Z	V	M	O		X	A	
I					N	D	U	N	A	T			
A	D	G	U	C	E	D	E	O	R	O			
S	V	A	R	R		R	B	E	N	A			
A	E	R	A	T	E	R		T	R	A			
P		Z			p	Z	A	R	U	T	Z	O	
							V	B					
					N	O	L	A		V	H	I	
							D	R		L			

Maite Elizondo Cuñado

ZAINTZAZ, IRRIBARRETSU



KONDENA BILAKA EZ DADIN

Harpa eta pianoa jotzea du gustuko Maitek. Boteredunek zaintzaren gaiarekin "harpa jotzen" digitela ere uste du ordea. Izurritearekin gaia erdigunera atera bada ere, "zaindu zaitez" gisako kanpainak, atzetik zinezko debate bat eta baliabide publikorik ez badago, hipokrisia hutsa direlakoan dago. Izurrite garaian sorturiko elkartasun sareak eraldaketarako hari dira bere aburuz, betiere eteten ez badira eta zaintzaren eremu zabaleraren hedatzen badira. Euskarak behar dituen gisan, emakume zaintzaileek ere arnasmuneak behar dituztela aldarrikatzen du, zaintza kondena bilaka ez dadin.

"Ingurukoak ongi zaintzeko norberak ongi egon behar du"

Osasun izurriteak jada zailak ziren hainbat egoera okertu ditu, eta zaintzaren esparrua da horietako bat. Mendekotasun handiko pertsonen zaintzaz arduratzen diren emakumeen inguruan solastatu dugu Maite Elizondo psikologo irundarrarekin. Autozaintzaz arduratzeko gomendatzen die artatzen dituen pertsoneri, eta jendartea sostengatzen duen zaintzari balioa eta baliabide ekonomikoak emateko, berriz, botere publikoei.

 AITZIBER ZAPIRAIN  IRANTZU PASTOR

Zaintza erdigunean, ba ote?

Izurrite honekin muturrera egin dute lehenagotik zaintzaren bueltan zeuden zailtasunek. Batez ere ez delako baliabide gehiago jarri. Mendekotasuna duen norbaiten zaintzaz arduratzen den emakume ez profesional batek aurrez zituen arnasmune txikiak galdu ditu, esaterako. Zailtasun emozionalak eta estrukturalak areagotu dira. Zenbait egoera kudeatzea oso zaila bilakatu da. Halako egoerek inbertsio pertsonal handia eskatzen dute, prozesu luze eta gogorra izaten baita. Askotan, kanpokoen enpatia gutxirekin. "Tokatu egin zaizu". Kexatzeko kasik aukerarik zein eskubiderik gabe sentitzen dira asko. Pandemiak, gainera, erruduntasun sentsazioa handitu egin du. Zaintzatik at hutsa hartzeko tarteren bat hartuz gero, kalera irten eta etxean utzi dutena kutsatzeko beldurra dute askok. Zurrumbilo toxikoa sor daiteke, eta zaintza prozesua asko luzatzen bada kalte psikologikoak ere jasan ditzake zaintzaileak: erruduntasuna,

frustrazioa, antsietate krisiak, depresioak...

Nola lagun daiteke zaintzailea?

Enpatia oso garrantzitsua da. Senideetako bat izan ohi da ardura handiena hartzen duena eta beste batzuk inguruan gelditzen dira, bera bezainbeste inplikatu gabe. Komunikazioa eta enpatia oso garrantzitsuak dira halakoetan. Modu prebentiboan aritzea ezinbestekoa da. Bizi garen jendarte indibidualista eta azeleratuan ez dakigu gelditzen, hausnartzen eta ingurukoei begiratzeko. Zinezko zaintzaz ari bagara, gizarteak modu kolektiboan antolatu behar du, gizarte osoari baitagokio eta ez etxeko bakoitzari soilik. Eten-gabe lan produktiboa egitera behartuta gaudela dirudi eta agintariekin oso gutxitan edo ia inoiz ez dute aipatzen gelditzeko, gogoetatzeko, benetan elkar zaintzeko. Are, ez dute horretarako baliabiderik ematen! Sistema eusten duen faktore garrantzitsua dela jakin arren. Hipokrisia handia dago.



"Norbera zaintzaren emaille gisa irudikatzen da gehienetan, ez hartzaile gisa. Autozaintza ezinbestekoa da".

Ba ote dakigu zer den zinezko zaintza?

Jaiotzen denetik hil arte behar du pertsonak zaindua izatea. Gaur egun sektore zehatz batzuekin identifikatzen da gehiago, umeein eta adinekoekin. Gainera, norbera emaille gisa irudikatzen da gehienetan, ez hartzaile gisa. Autozaintzaz oso gutxi hitz egiten da eta ezinbestekoa da. Ingurukoak ongi zaintzeko norberak ongi egon behar du, eta gaur egun egoera oso desorekatuta dago. Geure burua baztertzen dugu, alboratu eta muturreko kasuetan baita ahaztu ere, hurkoa zaintzeko. Norbera ongi ez badago, ordea, bestea ez du ongi zainduko. Beti modu funtzionalean ari gara, emozionala alde batera utzita.

Zer da autozaintza?

Jaiotzen garenetik egin beharko genuke, bizitzeko modu bat da. Haurrei jokamolde osasuntsuak erakusten dizkiegu, baina eguneroko erritmoa dela-eta, helduaroan bazter uzten ditugu. Kontzientzia bera ukaitea ezinbestekoa da. Zailtasunak kudeatzen ikasten dugu ikastolan, zergatik ez dugu jarraitzen helduaroan?

Senide bat zaintza tokatzen bazaigu geure burua ezagutzea ezinbestekoa da, bestea ongi zaintzeko.

Nola egiten da?

Geure mugak ezagutu behar ditugu, noraino eta zer egiteko gai garen eta prest gauden jakiteko. Zaindu behar dugun pertsonak duen eritasunaren arabera ko formakuntza jasotzea ere oso baliagarria izan daiteke. Ez da gauza bera minbizia duen norbaitekin egotea edo dementzia aurreratua duen norbaitekin. Barne elkarrizketak oso garrantzitsuak dira: "Zer esaten diot nire buruari? Nola sentitzen naiz egoera honetan?". Errudintasunaren auzia lantzea ere oso garrantzitsua da. Gehiegitan pentsatzen dugu gehiago egin dezakegula edo gaizki ari garela. Elementu kontrajarri askorekin topo egin dezake zaintzaileak. Eritasuna duena asko maite dugu eta ez diogu gure buruari "kokoteraino nago, ezin dut gehiago" onartzea baimentzen. Ez guk ezta jendarteak ere, gaizki ikusia dago. Oso sentimendu naturala da ordea, normala da. Dolua lantzea ere komeni da. Sarri eritasuna duena bizirik dagoela

hasten da, autozaintzaren parte da.

Burnout sindromea ere hor dago.

Orokorrean gustuko ez ditugun profesioetan gertatu ohi da, baina zaintzaren kasuan ere ematen da. Azken batean behartuta eta beste aukerarik gabe sentitzen gara eta horrek areagotu egiten du burnout sindromea: zaintzaileari jada ez zaio deus axola, emozioak anestesiatuta ditu, zaintzen ari den pertsonari zakar hitz egiten dio... Azaleratzen den azken sindromea izan ohi da, baina hor dago.

Zaintza plazerez egitera hel gintezke sistema bestelakoa balitz?

Dudarik gabe. Sistema irauli beharko litzateke ordea. Instituzioek gaiari errotik heldu beharko liokete, formakuntza zein baliabideak eskaini zaintzaileei (izan ekonomikoak, psikologikoak, estrukturalak...), horiek kondena gisa hartu ordez, aukera libre gisa ere sentitzeko. Izatez polita baita maite duzun hori zaintzea. Eta plazerez edo hainbeste sufritu gabe egiten baduzu, egunerokotasuna bera eta ondorengo dolua ere errazago egiten dira. ●



“Oporretan ere umeen ongizatea bilatzen dugu”, dio Arrasateko bikoteak, paretik nola kendu kalkulatu bitartean




Guraso.eus-ek eta Txatxilipurdi gazte mugimenduak antolatuta, guraso eskolak egin dituzte asteburuan Askizuko aterpetxean, seme-alaben oporraldia nola kudeatu ikasteko. Parte-hartzaileak pozarren sumatu ditugu itxiera ekitaldian. “Hiru hilabeterako plana lotua dugu jada”, kontatu digu izenak eman nahi ez dizkigun Arrasateko bikote batek. “Umeen ongizatea bilatu dugu beste edozeren gainetik: ekainean ‘Mondra Campus Futbol’ teknifikazio-gunera eramango ditugu umeak; uztailean uztartuko ditugu udaleku normalak –es-

kulanak eta hori- ingelesekoekin, inoiz ez baita berandu haien curriculumak lan-tzen asteko. Ondoren, abuztuko lehen bi asteak aitona-amonarekin emango dituzte irrikan daudelako etxeko txikiekin are denbora gehiago pasatzeko; eta gero Lizarrako kanpinera joango gara barbakoeak egin eta mozkortzera umeek han lagun asko dituztelako eta oso ongi pasatzen dutelako. Iraileko lehen egunetarako beste aitona-amonak fitxatu eta listo, eskolan hasterako askoz ere pertsona osasuntsuagoak izango dira umeak, zentzu guztietan”. ●

SAREAN ARRANTZATUA

Zea mays dago



@pedrozuberogit | Twitter

Seigarren alaba




@Baltzelai17 | Twitter

Hernaniar bat Ardanzaren txaletera sartu da, Guggenheim berria zelakoan



“Nik zer kristo jakin behar nuen txalet puska hori ez dela Guggenheim museoa. Bizkaiko Diputazioaren aplikazioan bilatu dut ‘Urdaibai basque green museum experience Gernika free’ eta GPSak hona ekarri nau”, azaldu digu Jose Antonio Ardanzaren etxera sartu den hernaniarrak. “Agian Euskaltelen Wifi-ra


konektatuta nengoelako edo? Ez dakit”, dio. Oraindik beldurra gainera kendu ezinik kontatu digu etxera sartu eta bat-batean tipo bat agertu zaiola korridorean, zetazko txabusi-granatea soinean, pipa eskuan eta doberman handi bat alboan duela. “Orduantxe jabetu naiz hura ez zela Guggenheim-a”. ●



HODEIA EZ DA EXISTITZEN
iametza podcast

TEKNOLOGIA BURUJABETZAREN INGURUKO PODCASTA

Albisteak | Erreportajeak | Elkarrizketak | Gomendioak
Entzungai baleafunk.eus-en





XAPOKETAN

KARTA-JOKOA



15€

Bidalketa gastuak: 4 €

Ezagutu Euskal Herriko animaliak!

Euskal Herriko lurralde banatako zazpi ekosistema eta 42 animalia ezagutuko ditugu. 5 jolas ezberdin egin daitezke: familia jolasa, puzzlea, ezkutaketa eta memoria eta azkartasun jokoak.

EDUKIAK:

Iñaki Sanz Azkue biologoa

IKUSPEGI PEDAGOGIKOA:

Lore Erriondo EHuko irakaslea

MARRAZKIAK:

Eñaut Aiertzagüena

Eskaerak: azoka.argia.eus / 943 37 15 45

 ARGIA